Unificación por decreto. Es la aspiración de no pocos que esa unificación se ha de lograr por decreto autoritario de la Academia a la que todos los amantes del euskera deberían sujetarse.

Lo he dicho en un principio; para que haya grandeza, progreso, vitalidad y victorias en un pueblo o también en una literatura es preciso que el que manda y el mandado marchen unidos, que entre preceptos y cumplimientos no haya divergencias, que por muchas y muy grandes que sean las discrepancias intelectuales no las haya en el orden práctico de la ejecución. Si la autoridad es considerada legítima por los subordinados fácilmente se conseguirá esa fusión del alma gobernante y de la gobernada; mas si una autoridad es disputada y tal vez negada tiene que proceder con cautela si no quiere que con sus decretos lejos de contribuir al desenvolvimiento de la cultura social colabore a su destrucción y muerte. La Academia Vasca es una autoridad disputada por muchos y negada por no pocos tanto por su formación como por sus procedimientos. Este es el hecho, sin entrar ni pretender siquiera el análisis de las razones básicas de ese juicio. No me importa que se modifiquen y aun que dejen de existir todas o parte de las leyes fonéticas, pues no las juzgo necesarias a la vida del idioma por más de que sean curiosas manifestaciones de su riqueza y vitalidad. Sin ellas puede vivir, sin ellas vive en muchas tal vez en la mayoría de las regiones vascas. El destierro de las leyes fonéticas es muy pequeño mal frente al gran bien de la conservación y de la mutua inteligencia (unificación formal) de las literaturas vascas si por ventura puede ser esa inteligencia dependiente de la supresión de las leyes fonéticas. Pero estimo que esa unificación lograda o que se intentara conseguir por decreto ni está conforme con el movimiento evolutivo de los idiomas ni con el carácter vasco ni sancionado por el proceder de Academia alguna de las precedentes. Ni siquiera en

la Academia yugo-eslava hallo tales decretos si bien hay indicaciones y anhelos de unificación. Cuando entre los literatos vascos surjan hombres de la talla de Homero y San Juan Crisóstomo, Virgilio y San Agustín, Bossuet y Shackespeare o quien sea el autor de los dramas shackesperianos entonces vendrá la suspirada unificación no por decreto sino por arrastre seductor de las sublimidades artísticas. Las Academias ni los Poderes públicos han impuesto jamás un dialecto con preferencia a otro, se han limitado a conservar las perfecciones y corregir los abusos. Si el castellano se sobrepuso al latín no fué porque Corte alguna de Castilla, León o Nabarra (la primera o de las primeras en hacer uso oficial del castellano) lo impusiera sino porque los autores del *Poema del Cid* y semejantes poetas y romanceros se sobrepusieron.

Repetimos que no nos importa la desaparición de leyes fonéticas, pero sí nos dolería y protestaríamos si esa desaparición quisiera extenderse a la supresión de diferencias verbales sustanciales o al destierro de conjugaciones tan ricas, tan peculiares, tan exclusivas nuestras como la conjugación dialogada que no la conoce idioma alguno semita ni indo-germánico. Y ninguna de esas supresiones ni aún la fonética quisiéramos que viniera por decreto ni por imposiciones a los escritores.

El camino a emprender no es ese a nuestro juicio, sino el de la *escuela vasca*. Si en la escuela se aprende *bien* una variedad dialectal no se dude de que poco o nada importarán las demás variedades. Pero hay algo más que eso. ¿Por qué en la Escuela Vasca no se habían de enseñar dos o más dialectos? ¿Es que está sobre la capacidad del niño o del adulto? No; el niño vasco juega actualmente con dos

idiomas tan antitéticos como el euskera y el castellano; niños de 5 y de 6 años son bilingües consumados que mediante el contacto con unos y con otros emplean con toda destreza hasta con los más modernos neologismos. Lo he visto y lo he oído. Para convencerse de ello no hay más que alternar un poco con esos niños *en euskera* y hasta en la misma Gernika tan invadida ya por el castellano presentaré niños de 6 años hijos de padres enemigos de *novedades euskéricas* que sostienen conversación castellana lo mismo que otra conversación vasca en la que *conscientemente* pondrán neologismos limpios junto a una palabra asesina de la limpieza idiomática del euskera.

¿Por qué, pues, el niño vasco no ha de ejercitarse en la escuela en la lectura y empleo de diferentes dialectos, aun cuando sea uno solo el que use en su conversación ordinaria? ¿No saldría así con una práctica facilidad para todas las lecturas, fueran del dialecto que fueren? ¿No estudiaban los niños hebreos irregularidades de verbos empezados, terminados o intercalados por tal o cual consonante? ¿No se apropian los párvulos castellanos, franceses, italianos y alemanes listas de verbos irregulares más difíciles por su falta de lógica que nuestras diferencias dialectales siempre lógicas, siempre regulares?

Pues ese es el camino a emprender y el que emprendemos en el trabajo que hoy presentamos a la Academia.

k) Nuestro trabajo en orden a la unificación

No es un trabajo definitivo ni lo es para niños, lo confesamos. Su método *apriorístico* y *sintético* es para inteligencias ya ejercitadas en la reflexión y en el cálculo. Es que a nuestro juicio es nuestro verbo

tan filosófico, tan prodigioso en su nervio interno que no se le puede estudiar adecuadamente sino con tales métodos, pues no es producto de inteligencias niñas sino de cerebros vigorosos, o digamos mejor, obra de la Inteligencia soberanamente filosófica y ordenadora que es Dios.

Nuestro brevísimo estudio del verbo en todos sus dialectos es para mentes cultivadas y para ellas lo escribimos hace dos años; pero creemos que más o menos se puede adoptar a los niños y pensamos que se debe imponer en escuelas libres de los jóvenes de carrera que lloran la pérdida o quizás el no haber sabido jamás la lengua de su raza.

Para que se vea cuán conducente es a la unificación *formal* que principalmente hemos proclamado en este escrito, analícese el adjunto trabajo y véanse sobre todo los resúmenes-síntesis que estarán hacia los números 18 y 27. (1)

Lo hemos dicho ya antes y repetimos que ese estudio se limita a dar cuenta sintética del único resorte a que obedece el verbo vasco en *todos* los dialectos, es un exámen en conjunto de *todos* los dialectos en el que se verá cuán exagerados y fantásticos son los que ponderan nuestras discrepancias dialectales en el verbo. En él no seguimos corrientes algunas innovadoras y reformadoras, nos limitamos a dar idea del verbo *tal como existe* y unas nociones de las sentencias y opiniones restauradoras sin declararnos partidarios de ellas.

En conclusión, proponemos las tres conclusiones siguientes que sintetizan cuanto hemos escrito hasta aquí.

---

(1) Decimos *hacia* los núms. 18 y 27 por no poseer actualmente los originales que obran en poder del benemérito impresor tolosano D. Eusebio López

1.ª Que se haga la unificación, pero más la unificación *formal* o de inteligencia por dominio de los dialectos, que la unificación material de voces y flexiones. No queremos supresiones ni destierros por decreto, sino que se hagan por introducción de las diferencias dialectales en las inteligencias donde se unificarán. Las supresiones únicamente las admitimos en cosas *muy secundarias y accidentales* y a lo sumo las admitiríamos en las leyes fonéticas, principalmente en las llamadas por Sabino de Arana *arbitrarias*.

2.ª Que se estudie el medio más adecuado de implantar en las escuelas un método que haga que los niños y más aún los adultos dominen todas o siquiera las principales diferencias dialectales.

3.ª Que en orden a la unificación se estudie el trabajito «El Verbo Euzkérico en sus Dialectos» que aunque inadecuado a los niños, creemos que él u otro semejante se *imponga* a los adultos, se *adapte* a los párvulos y se *estudie* por todos.

Convencidos de la conveniencia de la marcha uniforme y concorde de la autoridad lingüística y de los escritores, gustosos recibiremos las indicaciones que la ilustrada Academia Vasca se digne hacernos. Sometemos a su dictamen superior nuestro trabajo en camino seguro de ver muy pronto la luz pública como es de ver por las pruebas

Queremos que resurja potente y vigorosa nuestra lengua; que se implante y que se haga *de moda* en nuestras calles y en nuestros colegios, en nuestras iglesias y en nuestros centros de reunión; que en nuestro suelo no se oiga otro idioma que el nuestro, que nuestros valles y nuestros montes, nuestras cos-

tas y nuestros mares se sientan acariciados y agitados por el vibrar euskérico de nuestros labios; que las cálidas plegarias y oraciones que brotando de nuestro corazón suban a través de los espacios hasta el cielo sean plegarias y oraciones con vestimenta euskérica.

Y para eso unifíquese el euskera, pero unifíquese de la manera y por el camino que hemos indicado. Así será como mañana tendremos una literatura exuberante, vigorosa, uniforme que nos la darán los grandes y geniales escritores que serán leídos con avidez por todos los vascos para quienes al abandonar la escuela, no habrá ya obscuridades ni diferencias dialectales.

Oŕela egin bedike Jaungoikuak eta Berak Miren garbi-biŕaŕtez baŕgikez Euzkeltzain argitsuben burubak.

Uŕutia'taŕ Gotzon M. B. S.

Uŕtzizti-irakaslarija

Santo Domingo de la Calzada 26-IX-920.

Señor Director de la Academia de la Lengua Vasca:

El que suscribe, accediendo a la invitación hecha por la Academia de la Lengua Vasca, tiene el honor de poner a la consideración de los señores académicos el siguiente juicio acerca de la unificación de los diversos dialectos de la lengua vasca:

Muy conveniente sería esta unificación, sinó bajo el punto de vista lingüístico, por lo menos en cuanto a facilitar las relaciones inter-regionales en el País Vasco, con las provechosas consecuencias que para él habían de seguirse, si las actuales tristísimas circunstancias en que se encuentra la lengua vasca, lo permitieran.

Porque es de temer que el intento de unificación no produzca otro resultado que el de contribuir a la muerte del vascuence, que sea un agente más entre los muchos que laboran por su desaparición.

El euskera languidece y muere porque es poco útil. En la vida de relación, cada día más extensa y complicada, no le basta hoy al euskaldun su lengua, no le sirve de medio de instrucción y de cultura, cuya necesidad siente más cada día; le es, más bien, un obstáculo para adquirirla, y el euskera es para muchos un estigma de incultura.

Por eso el euskaldun, en general, no ama su lengua; desea adquirir y perfeccionarse en otra, sin

preocuparse de conservar aquella... ¡si no hace esfuerzos por olvidarla y ocultarla avergonzándose de conocerla!

Se ha intentado provocar una reacción; se ha hablado al euskaldun de patriotismo; se le ha dicho que el euskera es una hermosa herencia de sus antepasados, un distintivo de su raza, una prueba de su nacionalidad...; se ha escrito y sigue escribiéndose en euskera, se ha fomentado su lectura...

Y algo se ha conseguido; se ha conseguido que algunos vascos instruídos hayan fijado su atención en el euskera, que se hayan animado a leerlo y a perfeccionarse en él, si lo poseían, que se hayan animado a aprenderlo, si no lo poseían.

Pero sigue siendo poco útil para todos, para los instruídos y para los no instruídos; y para estos últimos sigue siendo un obstáculo para su instrucción y cultura e insuficiente para los menesteres de la vida y el desarrollo de sus negocios.

Algo más se hubiera conseguido si en vez de aspirar a puritanismos y a renombres literarios, se hubiera aspirado a facilitar al euskaldun, por medio del euskera, por medio del euskera que él habla y entiende, los conocimientos necesarios para su vida de relación, si se hubiera procurado instruirle y deleitarle, escribiendo en euskera, incorrecto y defectuoso si, pero para él comprensible, acerca de sus cosas, de sus necesidades, de sus intereses, gustos y aficiones.

Pero se ha querido, por lo menos en el país vascopeninsular, convertir al baserritar, de noche para la mañana, en un literato brillante y un filólogo profundo, y se ha escrito en un euskera depuradísimo, a veces enrevesado y caprichoso, en un euskera para él nuevo y desconocido, en un euskera, en fin que él

no entiende y de cosas que le interesan poco o nada. Y ello ha dado por resultado que el euskaldun, especialmente el poco instruído, rechace tales escritos, menosprecie a los neovascófilos y se confirme en su necesidad y conveniencia de adquirir el erdera y olvidar el euskera. Y por querer que se hable demasiado bien, se ha conseguido que lo menosprecien y dejen de hablarlo los que lo poseen.

Y dada esta actitud del euskaldun peninsular para con su lengua, es casi seguro que el intento de unificación, que la imposición de un dialecto, de un modo de hablar que no es el suyo, que no lo entiende o lo entiende con dificultad, produzca idénticos efectos a los producidos por el deseo de que hable demasiado bien.

Además el euskaldun, por lo menos el baserritar peninsular, no lee, no tiene qué leer, no sabe leer, no quiere leer.

No lee porque no se le dan facilidades para ello; no tiene qué leer porque no se escribe acerca de sus cosas, de lo que le interesa, de lo que necesita, de lo que le agrada..., y si algo se escribe acerca de eso él no lo entiende, no conoce aquellos términos y palabras que no ha oído nunca, ni sabe lo que significan, aunque sean muy euskéricos, y arroja lejos de sí el periódico, la revista y el libro escritos en euskera. El baserritar no quiere leer porque le cuesta leer, no tiene el hábito de leer, porque no sabe leer en euskera, aunque lo sepa en castellano, y si alguna vez se decide a leer, no entiende lo que lee, y si lo entiende, no le interesa lo que lee.

Si a quien se encuentra, pues, en tal estado no se le dan facilidades para que lea, para que se habitúe a leer, sino que por el contrario, se le aumentan las

dificultades no dándole a leer más que escritos en dialecto que no es el suyo, no se conseguirá que lea, y lengua que no sea leída por el pueblo que la habla, ha de desaparecer necesariamente, consiguiéndose a lo sumo que, como el latín y el griego clásico, lo hablen, acaso muy bien, unos cuantos eruditos.

Importantísimo para la resurrección del vascuence es el *euskaldun barri*. ¿Y qué dialecto ha de aprender éste? Concretándonos a Bizkaia y en el supuesto de que el dialecto que se imponga sea el guipuzcoano, ¿aprenderá éste o el vizcaino? Si aprende el guipuzcoano le será muy difícil entender a sus paisanos los vizcainos, le faltará el elemento hablado para poder perfeccionarse; y si aprende el vizcaino, le será muy difícil entender el dialecto impuesto, el oficial y le faltará el elemento escrito para adquirir la perfección necesaria. ¿Tendrá que aprender los dos? Es lo mismo que decirle que no aprenda ninguno. ¡Pues no es poco extenso el verbo vasco en cualquiera de sus dialectos ni son pocas las dificultades que ofrece el erdeldun para exigirle que aprenda el de dos dialectos!

Para llegar a la unificación del vascuence no es necesario imponer ninguno de sus dialectos; por el contrario, lo que se precisa es cultivarlos todos, o por lo menos, los cuatro principales.

Esto que parece una contradicción, no lo es. Veámoslo.

A un euskaldun vizcaino que cultive el euskera, o que tan solo frecuente su lectura, no le es muy difícil entender un escrito en euskera guipuzcoano, y si se encuentra ante uno que ofrezca algún interés, no de-

jará de leerlo, *a no ser que esté dominado por algún prejuicio u hostilidad contra el euskera guipuzcoano*. (Y es preciso confesar que hay quienes tienen ese prejùicio y con cuya resistencia ha de contarse al tratar de imponer el dialecto guipuzcoano.)

Y lo que con los escritos guipuzcoanos ocurre a un vizcaino, ocurre igualmente a un guipuzcoano respecto a los escritos vizcainos. (Y también es preciso confesar que hay guipuzcoanos que desdeñan leer escritos en euskera vizcaino, y acaso sean más éstos que aquellos.)

Ahora bien; si los escritos interesantes se multiplican en uno y otro euskera y se difunden en una y otra región, habrá entre los lectores y cultivadores del vascuence un intercambio de lecturas que necesariamente ha de producir un intercambio de palabras, frases y giros que dichos cultivadores han de trasmitir al pueblo en sus conversaciones y escritos. No de otra manera se explica la introducción en el verbo vizcaino de algunas formas verbales guipuzcoanas hasta el punto de haber puesto en desuso las genuinamente vizcainas.

Y si estos cultivadores o simplemente lectores son muchos, el intercambio será mayor y mayor la aproximación e inteligibilidad de uno y otro dialecto, terminando por refundirse en uno solo, en el que predominaran las palabras, frases y giros del dialecto en que más se escriba, o mejor dicho en que más se lea.

Este fenómeno se verificará en todos los dialectos contiguos hasta que al fin queden todos ellos reducidos a uno solo.

Lo que importa, pues, lo que se precisa es que haya cultivadores, o por lo menos, lectores de euskera. Y si los hay en abundancia, si se consigue que el

euskaldun sea lector del euskera, la unificación se hará ella sola, y será una unificación natural y espontánea, no impuesta, una unificación sin violencia ni protestas.

Para que haya lectores de euskera es preciso hacerlo útil, estimular su lectura, escribir en él cosas interesantes, para toda clase de euskaldunes, labradores, pescadores, comerciantes y desocupados; escribir en euskera fácilmente comprensible para ellos, en su dialecto, sacrificando los puritanismos y hasta la misma corrección del lenguaje, si es preciso, a trueque de facilitar su lectura, para que esta misma facilidad sea un aliciente más y se consiga así imbuir el hábito de la lectura a quienes de otra manera no se habría de conseguir incluir.

Pero ¿es que se ha de detener la labor emprendida para la depuración del euskera? ¿Se ha de prescindir de toda la labor realizada? No. Como tampoco se ha de prescindir de los escritos y trabajos literarios. Pero la lógica y el sentido común piden que esos trabajos se hagan en libros escritos para eruditos, no en libros escritos para el pueblo; en revistas literarias, no en revistas o periódicos populares, o de publicarse en tales revistas y periódicos, lo sean en secciones especiales a las que acudan los eruditos y los que se sientan con aficiones a tales trabajos, después de haber contraído el hábito de leer en euskera y el gusto de cultivarlo.

¿Y cuál ha de ser, en consecuencia, la labor de la Academia de la Lengua Vasca?

1.° La de fomentar la publicación y difusión de

los escritos euskéricos populares en los cuatro dialectos principales.

2.° La de fomentar la publicación de los trabajos científico-literarios en cualquiera de los cuatro dialectos antes dichos.

3.° La de depurar el léxico euskérico, desenterrar y dar vida a voces, frases y giros arcaicos, olvidados o en desuso, que, no obstante procedan de la entraña misma de la lengua, cualquiera que sea el dialecto a que pertenezcan.

4.° Pasar revista a todos los neologismos de todos los dialectos y sancionarlos o rechazarlos con su autoridad.

5.° Crear, con el concurso de cuantos quieran colaborar, las nuevas palabras necesarias para las nuevas ideas y nuevas necesidades de la vida moderna.

NICOLÁS CORTÉS

Bilbao, Diciembre de 1920.

EUSKERAREN BATASUNAZ AZPARÉN'EN IRAKURÍTAKOA

Yaunak:

Gutxitxo esan nezaket onetarako aukeratu dan aldi labuŕean, ta ala ere, geigizkoa izatia baleike, nere lan au baezpakoa dala-ta.

Baña al genezakean guztia euskeraren beŕpizkundearen alde egitea beaŕekoa degu. Gure elea gizon aŕteko yakin gauzetan beste edozein aña edo geiago ba-da gai. Zaŕa ta gaztea batean, gure mendiak, udabeŕiro beŕitzen diran mendiak bezelakoa.

¿EUSKERAREN BATASUNA ON AL LITZAKE?—Galdera au beste era onetara aldatu leike: ¿Euskaldun guztiak alkaŕ aditzea on al litzake? Onela aukeratutako aŕloak baezparik ez du. Euskaldunak bata bestea aditzea guztiak nai deguna da. Baño gauŕ dan egunean au ez da onela izaten. Egunero ikusi leiken gauza da. Yaŕi itzazute beŕmeotaŕ bat eta oyaŕtzuaŕ bat eleka, edo-ta, yaŕi itzazute bizkaitaŕ bat, lapuŕditaŕ edo ziberotaŕ batekin. Oiek, nai dana esan ta egiñalak-egin, alkaŕ ondo ta guziz aditzerik ez dutela egi utsa da. Tamala, baño egia. Baleike alkaŕ aŕteko aŕtu-emanetan, baleike batzuek bestien mintzoeratako idaztiak irakuŕtzen oitu ta alkaŕen beŕiak yakitea. Baño au bestien mintzoerak ikastia bezelakoxea da. Ta guztiak guztien mintzoeretan yakiterako... euria bi bideŕ egin baietz.

Gipuzkoaŕ andŕe bati onela entzun nion bein batean: «Maketoak ez ditek bizkaiera bereala ikasiko»

adi-gaitza dala esan naiean. Onengatik, bada, bizkaitarak eta gañerakoak anaiak geralako, euskaldun guztiak era batera itzegin dezatela nai degu.

Antziñan, bakarra, sendoa, izan zan Euskera, beste «amak» izendatzen diran mintzoetan ikusten diran aztarnaz.

Gaur zatitua, mota askotakoa, agertzen zaigu euskalzaliei, bere zatitasunez aulkeria baletorkio bezela. Ez eri-pilla batetik bestera, ez eta eritik-erira, eri batean bertan ere mota oiek arkitzen dira. Eri batean *dana*, aldamenekoan *dena*, bestean *dezute*, urenan *dezue*, ta Donostia'ko arantzaliak *bejela* esaten dutena *bezela* esan bearean, iñon esaten ez dala baitin nago.

Bestetan «alkartasunak indarra egiten duala» esaten degun bezela, euskeraren batasuna euskeraren indarra dala esan genezake.

Edertasuna, dio César Cantú'ek, eriari yakinerazitzeko gai berezia da. Abenda bateri, guztiak alkaren beri izan dezaten, mintzoera bakarra bear-bearekoa zaio; bizikorra, gogaketa berienetarako gai izan dedin, ta aldiak bear bezela aldatu dedin.

Guk onela esan genezake: Eusko-eri guztiei mintzoera bakarra bear-bearekoa zaiete, bizkaitarak, gipuzkoarak, napartarak, arabarak, lapurditarak eta ziberotarak alkar aditu gaitezen.

EUSKERAREN ALDAKERA.—Urteak igaro ta idaztietan euskalmintzoera guztiak erabilian-erabiliaz pixkaka alkarganatuko lirakeala euskera bakarra osatzeraño, baleike uste izatia. Euskera au obea ala txarragoa izango litzaken, ez dakigu. Bada euskalmintzoera bat nagusituko balitz, egokiena ez izan aren, beste guztiak bere atzetik ekariko lituzke. Ori bakoitzak bereari eutsitzeko gogo geiegia izango ez

balu. Esan nai det, onela etoŕitako euskera bakaŕa obea edo txaŕagoa litzakeala, auŕerantzian gauzak obeki egiten ikasiko dala uste izan aŕen.

Baña euskeraren batasunaz ainbeste yaŕdutzen gerala-ta, alde guztietara bazteŕtu nai dan aŕiskoa dagoala antz-ematen du. Ba mintzoera bat, gauzak berez dijuazela, bestien gain yaŕi baño len, batutako pantzerak eta españerak euskal-mintzoera guztiak ito litzateke.

Ez Pindaro'tzaz, ez beren oleŕki edeŕakin len mota askotako geŕkaŕ mintzoa batu zuten geŕkaŕ oleŕkarietzaz, ez zaigutela itzik egin. Geŕkaŕ mintzoerak iltzeko zorian ez-paizeuden, gurea dagoan lez, ta gañera... euskal-oleŕkariak, guk dakigula, oraindik ez dira jaio.

Euskera bakaŕa izateraño berez aldatuko balitz, bai edeŕki. Baño gure bizilagunak ematen dizkiguten zaŕtadakin ¿gauzak nola dijuazen dakien guztia, onela geŕtatuko dala baitin ote? ¿ez ote litzake oŕdurako euskera betiko galduko?

Abeŕtzaletasunak guztia lezake, baño euskeraz ez dakiten abeŕtzale asko ikusten ditugunean... oŕegatik, bilduŕ gera. Euskeraren batasuna loŕtu-ta ez uste oŕegatik beragatik Euskerak burua betiko altxako lukeala, baño oŕetarako bide egokia dala bai.

BATASUNERAKO BIDEŔIK EGOKIENA.—Bi aldetara erakaŕi leike batasuna: bizi dan euskal-mintzoera bat aŕtuta, ala mintzoera guztietan sakabanatuak dauden gai bereziak ateretz mintzoera beŕi bat antolatuaz.

Nere ustez lenengoa da egokiena, batez ere aututako mintzoeran bestietan dauden gai yatoŕ aundienak saŕtzen baditugu, bestela zati edeŕ oiekin asko galduko luke euskerak.

Batutzeko bide onek alderdi on bat badu, euskalerri asko batutako euskeraz mintzatzen dirala. Ta erridi ori beti aldamenekoai bere erara zerbaitean eginerazten diela erazagoa litzake batasuna.

Mintzoera berri bat asmatuko balitz, bat geiago izango genuke. Orretarako egin bear litzakean lana ondo egiña balego, ta batasuna guztion yabe izatera baletor, bestela galduko zan euskera-gaia onela irabaziko litzake. Baña batasun ori asko nekezago etoriko litzake ta eri dagoana sendatzeko azkartxe ibili bear da, baleike bestela berandutxo izatea-ta.

Bigarren bide onekin, lenengoaren kaltez, mintzoera berri ori ez litzake ezaguna, ta len aitatu degun bestienganako eragintasuna utsa litzake. Aldamenekoen eragintasun au garantziduna da. Ta eragintasun ori ez litzake bakara izango, beti batera oituak dauden eriak elertiari bultzakada sendoagoa eman lezaiokete ondo ezagutzen ez duten mintzoerakin baño.

Beste laterietan gisa berberan egin zutena edestian ikastia on litzake. Gisa berberako arazo ori gogoan artzekoa da, bestela bide batetik antzik ez duten bukaera okeretara eldu giñake.

Ta neretzat zatitua dagoan mintzo batetik puskaka mintzo berri osoa berez ateratzia, mintzoki oien bizitasunaren agerkaia da. Gure euskerari sustraietatik ez datorkio auldasuna, diek ez zuten bizilagunatik baizik.

Ta azkatuta dauden eriak azkatu gabeakin ez dira neuri batetik artu bear.

Onelako bidean noiz-edo-noiz mintzoeren batasuna lortu da.

Baña norbait dala-ta mintzoera guztiak batera eldu dirala, askoz maizago ikusten dana da.

VIIIg. eunkiatik France'n *normand, picard, bourguignon, francais, gascon, limousin, languedocien*

ta *provencal* mintzoerak baziran. Gure arloarako ama batenak baziran ala ezpaziran zer ikusirik ez du.

XIIg. eunkiatik gora *francais* mintzoera eregeak sartu zuten. Eregeren mintzoera zala-ta gain-gañeko gizon-emakumen mintzoera izatera eldu zan.

Ta, onela, len Ile-de-France'n bakarik mintzatu zanak, poli-poliki beste guztiak alde batera utzi zituan, France guztiako mintzoa izateraño.

Arabe-mintzoan, Cesar Cantu'k dionez, Mahoma ta bere yarraileak mintzoera bat artu, garbitu ta oraztu egin zuten, ta arabitaren mintzo orokara egin zan: orain ere arabi-eri guztietako mintzo yakintsua da. Mintzoera onetan «Koran» liburua idatzita dago. Arabemintzoa ezagutzen diranetik aberatzena ta kementsuena da, bere iztegiak (dizionera) irurogei mila itz baño geiago baditu, bere agakak (alfabeta) 28 izki ta 3 tanto.

Onela serbio-kroatak eta ludiko eri askok.

Ta, esan zaidazute ¿zer gaitz letorkigu euskera batutzeko mintzoera bat artzetik, bein euskera batuta guztiak batera aldatuko bagiña?

AUTU BEAR LITZAKEN MINTZOERA.—Mintzoera guztien artean garbiena, mintzatuena ta zabalkorena, bat arkituko bagenu, aututzerik ez litzake, ta guztiak batera onena zein litzakean esango genuke. Onela sortutako batasunarekin asko irabaziko luke Euskerak.

Baña iru izaera oiek ez dira mintzoera batean arkitzen. Baleike bat garbiena izatea. Bestea zabalkorena edo mintzatuena ta onela.

Nere ustean Lapurdi'ko mintzoera da garbiena, itz yatorragoak dituena; *eran*, *bertze*, *bortz*, *ortzeguna*, *ortzirala* guk *esan*, *beste*, *bost*, *osteguna* ta *ostirala* esaten ditugunak. Itz oiek, lapurdieran, yato-

ŕagoak dirala baezpadarik ez du. *R*'izkia *s*'an aldatzia maiz izaten dan aldakera da; *astaburuaga, aŕtaburuaga; sagasti, sagaŕdi* ta abaŕ. Ta *s* izkia *r*'an aldatzia ez da beñere izaten. *R* soñua nola ateratzen dan igaŕtzia besterik ez da, zeñen edeŕki *s*'an uŕtu leikean sinisteko.

Itzak batutzeko *fonetika* geiena, nai duten edeŕa izan aŕen, nere ustez euskera galdua da, soŕtu-beŕia ematen du. Toki-izenetan, askotan ikusten dira Aramendia, Aldekoa, Oŕbea. Badirudi Aramendiya, Aldekua ta Oŕbia'n biuŕtzeko aztirik izan ez dutela. Badirudi izen zaŕaganako begiruneak aldakera txaŕetatik aldendu dituela.

Lapuŕdiera batutzeko *fonetika* ori oraindik ez da jaioa. Mintzoera au gal-bidetik atzean gelditu balitz bezela. Ñ ta Ĩ izkiak yatoŕak ez dirala-ta lapuŕdieran ez dira aŕkitzen.

Lapuŕdiera ta gipuzkera politenak dira. Bizkaiera kementsua ta aditz (verbe) aberatsekoa.

Mintzatuena baezpadarik gabe gipuzkera. Bere eŕdiko tokia txit ondo datoŕkio. Zabalkoŕena ere gipuzkera da. Ta au onela izatea sinistu leike.

Gipuzkoaŕari guztiak aditzen diote, berak bestiai baño obeki.

Gizona, berez kaiseŕtzalea ez bada, imperialista ez bada, al duan era egokienean mintzatzen da besteak ondo aditu dezaioten. Ta onetara eŕazagoa zaiote gañerakoei gipuzkera mintzatzea, berak bestien mintzoerak erabiltzia baño.

Mintzoeren alkaŕ-aŕteko antzez, iru taldetan eratuko nituzke: 1.ª *gipuzkera-goi-napaŕa-laburditaŕa;* 2.ª *zibero-be-napaŕa* ta 3.ª *bizkaiera*. Zibero ta bizkai mintzoerak aldenduenak dira ta alkaŕ-aŕtean ia Españera ta Poŕtugal'era aŕteko antza dute.

Lenengo taldean, Lapurdi, Napara ta.Gipuzkoa'ko taldean, beste guztietan baño askoz geiago mintzatzen dira. Gipuzkoa'ko alde batean mintzatzen dan bizkaiera gero ta gutxiago egiten da.

Goi-Napar mintzoera Lapurdi ta Gipuzkoa'en artekoa da, antzian ere.

Yaunak, onera eldu-ta, ni, naiz nere usteko okeraldeko mintzoera autu, oraintxe bertan neretzat artzen det, ta nere iruditzea esan bear badet, lenengo taldetik artu bear litzakeala esango det, edo-ta, euskeraren batasuna edo laburdieratik ala gipuzkeratik.

BATUTAKO EUSKERA NOLA ERABILI.—Euskeraren batasuna, lortzeko asmoa degula-ta noraño eraman leikean yakingaria da. Euskera bakara lenengo aldi onetan bear bezela egitekotan baleike eskutik artuta lez guk nai deguna iristia.

Batasun arazo onetan ez det uste elertiaren batasuna bakarik atzeman bearean gerala. Euskal-elertia (literatura) bat izate ta mintzoerak asko izatea negargaria litzake. Ta okeragoa litzake oraindik yakindun gizonak euskera bat erabiltzia ta yakingeak bestean mintzatzea. Euskotar batek, euskotar izateari utzi gabe, egin ezin lezakean gauza da au, gure barnea iguindu gabe egin ezin leikeana.

Batutako mintzoa artzekotan ez degu idaztietan bakarik erabili bear. Idatzi bidea euskaldun guztiak, bai eritarak bai baseritarak, era batera mintzatu ditezen guztiz ona da. Odol batekoak mintzo bakara erabili dezagun.

Guztiak batera mintzatzea ¿bat-batean egin leiken gauza al da? Ez, poliki-poliki baizik. Oraintxe ele bakara izango dan mintzoera autu, batasunzale guztiak oretara ikasi ta idatzi. Al leiken guzietan oretara mintzatu, al dan geiena oretara irakatsi.

Mutil txikitxoen ikastetxietan, oŕegatik, ez litzake euskera batua irakatsi beaŕ alik eta kozkoŕtu aŕte, agian kaltegaŕia litzake ikastetxean era batera irakastea ta gero etxekoa ezin aditurik ibiltzia. Ba taŕte guztietatik zai dagoan eŕdera baleike umien aŕtera laguntza eskeñiz etoŕtzia. Kozkoŕtutakoan, zeŕ esanik ez dago, idazti edo liburu guztiak euskera batuan izango lituzkete ta era oŕetara zaletu egingo lirake. Auŕerantzian guztiak yakingo luteke batutako euskera.

¡Euskal-Ikastetxea! Auxe bai euskera-bide edeŕa. Eraman itzazute zuŕe semetxoak ikastetxera (eŕdel ikastetxetara) esaten digute, ta kuŕunki irakatsi zenieten euskera gozoa alde batera utziko dute.

Euskaldun beŕi bakoitzeko badira eunka ta eunka euskera astutzen duten mutikoak, eta, ori bezin negaŕgaŕia dana, jaio ta ezagutu ez dutenak. Aldeŕdi edeŕa.

Baŕkatu, yaunak, gure gai onetatik zeŕbaitxo aldendu banaiz, oŕen gaŕantzi aundiko gaia da ori ere.

Izpaŕingietan, egunarietan, lan egokia egin leike. Baño oŕetan ere neuŕiz, irakuŕleak atzeratu ez ditezen. Gero ta geiago euskera batua erabiliaz azkenik batutako euskera utsa ikusten dala.

Edozein yakidi ta eleŕti lanetan, noski, euskera batua beaŕ litzake.

ERABATEZ

1.ª Euskeraren batasuna beaŕa litzake, euskaldun guztiak alkaŕ ondo aditu gaitezen. Euskeraren batasuna, euskeraren indaŕa.

2.ª Mintzoera bat, gauzak berez dijuazela, bestien gain yaŕi baño len, batutako eŕderak euskalmintzoera guztiak ito litzateke.

3.ª Batasunerako biderik egokiena bizi dan euskal-mintzoera bat aŕtzia litzake. Bestietan dauden gai yatoŕenak oni emanaz. Noŕbait dala-ta mintzoera guztiak batera eldu dirala, askotan ikusten dana da.

4.ª Mintzoeren alkaŕ-aŕteko antzez, iru taldetan eratu litezke: 1.ª gipuzkera-goi-napaŕa-labuŕditaŕa. 2.ª zibero-be-napaŕa ta 3.ª bizkaiera. Lenengo taldean beste guztietan baño askoz geiago mintzatzen dira. Euskeraren batasuna edo labuŕdieratik ala gipuzkeratik.

5.ª Batutako euskera ez litzake mutil txikitxoen ikastetxietan irakatsi beaŕ alik eta kozkoŕtu aŕte. Egunarietan gero ta geiago erabiĺi beaŕ litzake euskera batua. Edozein yakidi ta eleŕti lanetan beti euskera batuan egin beaŕ lirake. Euskera bakaŕa, bai idaztietan ta bai mintzoan.

Ta Yainkoa oroen gain.

ANABITARTE'TAR AGUSTIN.

EUZKERA BAKAŔA BIAŔA OTE DEGU?

Euzkera bakaŕa biaŕa izan litzake: *a)* Idazti ta idazkun guziyetan, eta batez ere euzkel-ikastetxe guziyetan erabiĺiyaz, euzkotaŕ denak aŕtu dezaketen, bestelako euzkelgiyak aztu edo utzita; *g)* Idazkun gorenetan edo eleŕti-idaztiyetan berau erabiltzeko; ez, ordia, bestelako idaztiyetan, ezta ume-ikastetxietan ere.

Euzkera bakaŕoi, egitekotan, bi bidez egin litzake: 1.º bidia: oraingo euzkelgiren bat aŕtu ta erabiĺi, bestiak utzita; 2.ª: oraingo euzkelgi guziyakaz arauzko euzkera egokiya antolatu, ta berau erabiĺi.

a) Euzkotaŕ denak aŕtu ta erabiltzeko euzkera bakaŕa, uste-uste det, ez degula biaŕa; eta, ordia, kaltegaŕiya litzakela.

Ona emen nire uste onen aztaŕenak:

1.ª Oraingo euzkeldun geyen-geyenak ez daude aldakuntza ortarako gerturik. Beraz, euzkeldun askok dakiten euzkelgiya aztuko lukete, ta besterik ikasi ez: eta au, euzkerea geruago ta geyago aultzeko bidia baizik ez da.

2.ª Euzkel-ikastetxe askotan umiak etxian entzuten ez luketen euzkeraz ikaskètak egingo biaŕ litukete: età au, euzkel-ikastetxiai indaŕa emateko bide egokiya ez da; batez ere euzkerearen etsairik aundiyena, eŕderea, aldamenean degularikan.

3.ª Euzkel-idazliak gutxiyago izango litzakete. Geruago ta geyago dira izpaŕingiyetara-ta euzkeraz-

ko idazkunak bidaltzen dituzten euzkeldun eŕitaŕak, baña beren euzkelgiya baizik besterik ez dakitenak eta ikasteko betarik ere ez dutenak; oneik, euzkera bakaŕa beren euzkelgiya baldin ez ba'litzake, ezin idatziko lezakete.

4.ª Euzkereari bizmen beŕiya emateko biaŕ ditugun indaŕik asko alpeŕikan galduko litzakete. Naiko lan egin biaŕko degu euzkeraz ez dakiten euzkotaŕai irakasteko: oŕetzaz ganera dakitenai ere beŕiya irakatsi biaŕ izanezkero, auŕerapenik egingo ote da?

5.ª Euzkel-gayetan naste beŕiya soŕtuko litzake. Euzkel-idazle ta iztiĺari denak ez lukete, noski, olako euzkera bakaŕa ontzat aŕtuko: eta oŕa oŕ euzkeltzaliak geruago ta elkaŕengandik aldendubago.

6.ª Azkenez, euzkotaŕ orontzako euzkera bakaŕoi egiteko lendabiziko bidia aŕtzen baldin ba'da, au da, oraingo euzkelgiren bat, bestiak utzita, aŕtzen ba'da; gure euzkera edeŕ onek eŕdi mozturik iraungo du. Yakiña da, ba, euzkerea euzkelgi bakoitzan osorik ez degula; euzkelgi bakoitzak bestiak ez dituzten gauza on asko bai-ditula. Eta gauza oyek gañezkuak eta alpeŕikuak ez dira; maiz, batez ere eleŕti-idazkunetarako, egokiyak eta biaŕezkuak bai-dira-ta. Euzkelgi bat ez, beste guziyak utzizkero, ba, gauza oyek galduko ditugu, ta euzkerea moztu egingo da; baña asabeakandik osorik aŕtu degun euzkerea gure semeiĺobai mozturik emateko eskubiderik ez degu, ezta oraingo euzkeldun guziyen aburuz ta erabakiz egin al izanda ere. Itsaso-erdiyan ondatzeko zoriyan dagon ontziya, daramazkin aberaskiyak egotziyaz, arintzia bidezkua da; baña nork argi agertu du, euzkerea bere aberaski ta edeŕki guziyakin ezingo dala gaizkatu ta nausi egin? Nik beintzat uste-uste det gaizkatu

litzakela, eta, Urtzi lagun, egin ere gaizkatu egingo degula.

g) Eleŕti-idazkunetan eta ikastetxe nausiyetan erabiltzeko euzkera bakaŕa oraindikan urte batzutan biaŕa izango ez degula-ta ere, uste det geruago egokiya izango bide-dala.

Euzkel-eleŕtiyak euzkeldun geyen-geyenentzako eragipenik ezingo dezake izan urte asko igaro-arteño. Lenago euzko-eŕi guziyak euzkel-ikastetxez bete biaŕko ditugu; umiai beren euzkelgiyaz ganera beste euzkelgiyetako gauza berezi nausiyenak irakatsi biaŕ dizkiyegu; umę oyen gogoetan irakuŕtzaletasuna baŕendu biaŕ degu. Eta olan irakatsitako umiak gizonak daitezkenean, euzkel-eleŕtiyak euzkeldunentzako eragipena izango dezake. Bitaŕtian gure indaŕik geyenak ariketa biaŕezkoenetan erabiĺi biaŕko ditugu: euzkelgi bakoitzez umientzako ta eŕi guziyarentzako idaztiyak egiten; euzkelgiyok azteŕtu, ta alik arauzkoenak eta kidienak egiten; ez dakitenai euzkerea, bakoitzari berari dagokiyan euzkelgiya, irakasten, eta abaŕ.

Geruago baña, esan det, eleŕtiyarako ta ikastetxe nausiyetarako euzkera bakaŕa egokiya izango bidelitzakela. Izan ere egokiya litzakela uste det, ikasketa nausiyak euzkeraz egingo al daitezkenean, ikastetxe nausi baten eta euzkera bakaŕez egin al izatia; eta beraz, ordurako euzkera bakaŕoi gertu eukitzia. Bañan estutu biaŕik ez degu, lenago urte luziak igaro biaŕko bai-dira-ta.

Eta urte onetan euzkera bakaŕoi egiteko ibiĺi biaŕ geran bidia ene ustez auxe da: iru euzkelgiyak (bizkayerea gipuzkerea, ta aunerea) landu ta arauztu, batez ere aditza edo izpiyakerea *(fonética)* iru euzkelgiyotarako berbera aŕtu, bakoitzari dagozkiyan lege

bereziyak ere antzi gabe, (izpiyakera-lege geyenak kentziari, euzko-zuaitzik ederena, euzkerea, abarmoztutzia deritxat); itz beriyak, oroz-gain yakintzaitzak, berberak erabili iru euzkelgiyotan; eta au guziyau egiñezkero, elerti ta ikasketa nausiyetarako euzkera bakara erazki antolatuko litzake, euzkera oren atal bakoitza orain zuzenen eta osoen daukan euzkelgitikan arturik. Euzkera bakara, biara daikenerako, egiteko biderik egokiyena auxe bide-zala, orain bi urte idatzi nuban Tolosa'ko Lopez jaun argitaltzaliak irartzen daukan euzkel-aditzazko idazkunan; eta arezkero uste au geruago ta senduagotu egin zakit.

Euzkera-bakara len-bai-len egin eta erabiltzen ez ba'dezakegu, euzkerea ilgo zakigula diyotenak oker daudela uste det: euzkel-ikastetxiak len-bai-len egin, eta onetan umiai bere euzkelgiyaz ganera bestiak ere piskat irakatsizkero, euzkeldunak ez dezakete saildasunik euzkel giguziyetaz idatzitako idazkunak ulertzeko.

Eta onezkero, Euskaltzaindia'ri agertu nai diyot onuragariya deritxadan asmo au: egin ditzala berak, ala bestiai sari-bidez-edo egiten lagundu, iru euzkelgiyetarako euzkel-izti bana, umiai dagokiyen euzkelgiya ta beste euzkelgiyetako legerik nausiyenak ere erazki irakasteko egokiyak.

Aipatu ditudan gai onek ziaruago ta astiruago aztertu ta atzaldu biarko litzakete; baña une ontarako naiko edo-ta, ta esandako guziya itz gutxitan bildubaz bukatu biar det.

Euzkera-bakara biara ote degu? Orain euzko-eri guziyetan sartzen asteko euzkera bakara biara ez degu; kaltegariya litzake, ordia.

Elerti-idazkunetarako-ta geruago egokiya litzake; baña ortarako alik eta arauzkoena ta osoena egiteko,

oraingo euzkelgi guziyakaz antolatu biaŕ da, lenago iru euzkelgiyok aztеŕtu ta landuta.

Auxe ene ustia.

ZABAŁA-ARANA'TAR JOSEBA M. B. S. Koruko Andre Mariaren Ikastetxea'an irakaslariya.

Donostia, 1920 lotazīla-20.

EUSKALTZAIN YAUN AGURGAŔIEN AITZINEAN

Amayurko Eŕotor Kruz Goyenetxek ematen duen iritxi edo iduripena

Eskualdun guzi guziek biotzetik maitatu bear dugun gure itzkuntza zagaŕaren onerako, duela zenbait urte, gutartean sortua izan zen Euskaltzaindiak; bere eginpide zabal eta nekosen indaŕez, lanpetua badago ere; gogorapen onbat izan du. Eskualdunen artean euskal-era bat baño geiago badirela ikusita, untarik eldu diren erabe edo makuŕen lekuarazteko non zer egin ote daiteken galdatzea.

Bida direla, uste dut, Euskaltzaindiak gai untan egiten dazkun galde-erak.

1.° Bat: Euskalki guzietarik batartzea egoki ote den.

2.° Bigaŕena: Egoki balin bada, autetu bear de ori zein den. Edo Bizkaiera, edo Gipuzkoera, ala Napartar, Lapurtar edo Suberotaŕa.

Nere iduripena, deusgutikoa bada ere, al bezain lanoki eta garbi emanen dut.

Guzien gogorako gauza litzake, eskualdun guzien artean; odolez bat garen bezalaxe; eskualera bat bakaŕa izatea. Eta; nork asma ortarik etoŕiko litzaizkigun ondorio-onak. Untan ezdakust neor eztabada zerbait izateko aŕaiskurik. Bañan eŕan bearko baitugu, naski, aspaldiko itz neurtzaleak ziona: *Video meliora, proboque, deteriora sequor: Dakus obea-*

gorik, baita oberenetaz tiŕiatzen ere, aatik ttipisagoekin gelditu; Bearko. Gai untan nere iduriz, oribera gertatzen da. Ikusten dugu denak oberena litzakela eskual-era bat artzea; bañan denekin gelditu bearko. Zergatik? Ara zergatik. Uŕas oŕen ematea gauza zaĪa, nekosa eta eskuararentzat kaltegaŕia izan laikelakotz.

Lanpide zaĪa eta nekosa da ori: Ori egitekotan bat bear ginuke artu. ¿Zein? Ezta eŕes erabakitzea. Eskualdunek buru gogor aire bat badugula darasate bazteŕetan; ori ez ala izanta-ere, au bai egi aundi bat da, eskualduna atxikie dela bere gauzei, baita bearere; eta ez luke neork naiko bere amaren altzoan ikasitako *era* bazteŕerat uztea, zokorat igortzea.

Kaltegaŕia izain laitekelako belduŕik gabe ez naiz, buru gogorkeriguziak garaiturik, egin baledi ere. Bea zergatik: Aldi untan eskuaraz mintzatu eta idazki (escribir) bear duten lanpidea da, gure itzkuntza, itz eta yoskera aŕotzetarik garbitu ta, pinpin eta polit aitzinerat ematea. Orixe bai ongi dela, nere idurike, naiz batzuetan zenbaitek eta bear bada aunitzek, izerditu artaraño burua berotzen dugula, lanean bear dugunari, zer eŕaten zaikun aditzeko. ¿Zer izain litzake; ortaz landa, batek bere aurtasunean ikasi zuen *era* bazteŕerat utzia izan delakotz, bertze eskualera-en batean eŕaten zaizkonak beretu bear balitu? ¿Ez ote litzake ori aski izain; zenbaiti, beren biotzetan daramaten, eskuararen aldeko zaletasunaren pindaŕa, itzalita, betiko agur bat eskuarari eŕateko bide zabala ematea?

Oñik bada berzeik ere: Eskual eŕi guzietan xokoak diren bezala, bereartako ume-ek bakaŕik, ezagutzen dituztenak; alaxen badira itz edeŕak, ateraldi politak, eŕankizun aberatsak eskualera guzietan, angoek ba-

kańik agotan ibiltzen dituztenak; eta edertasun eta aberastasun ok guzioz galduko lirazke, bere eńo edo sustraya den eskualera zokorat igortzean; zuaitz bat ondotik aizkora-lariak mozten duenean, aren besangat eta adańak luńera erortzen diren bezalaxe.

Ońa zergatik; nere iduripena da, Euskalki guzietarik bat artzea, oray bein ezta egoki den gauza. Eńan dut: oray bein; Gero zer egoki izain den geroak erakutsiko du. Eskuararen batasun ori, ez indarka, baizik bere baitatik etońi bear duen gauza da. Guzion gogorakoa. On aundiak emain luzken gertaera; eta denek, bakotxak egiten al duena eginez, uńaska uńaska bilatu bear duguna.

Eńan ditut eńan gogo nituenak.

Elizondon Ilbeltzaren 27'an 1921'ren urtean.

GARITAONANDIA'TAŔ BITOŔ'EK

DONOSTIKO BATZAŔEAN EUSKERA'REN BATASUNAZ IRAKUŔI ZUEN TXOSPENA'REN ATERAKIZUNAK.

Beaŕ-beaŕekoa da euskal-idazkeraz guztiok bat-egitea.

¿Zein bide izango da egokiena euskal-bakuntza ori loŕtuteko?

Autetsi lenbizi ditugun izkelgietatik bat, eta aŕteztu, bere anaiak dituzten osaguneak ezaŕiaz.

Nire aburuz, gipuzkoaŕ izkelgia autetsi beaŕ da, beste izkelgiak baño obari geyago dituelako bere alde. Eŕezagoa, bai zabaltzeko ta bai uleŕtzeko.

Beste guzien erdian aŕkitzen da; ta eŕezago da erdikoa bere inguru edo alboetara zabaltzea, eŕtzak bat egitea baño. Bizkaitaŕak uleŕtzen dute gipuzkoaŕen izkera, gipuzkoaŕak ez bizkaitaŕena, gipuzkoaŕ ta zuberotaŕ edo lapurditaŕen artean ori ber-bera jazoten da.

Idazle guzien euskera ori ez da izango gauŕ-egunian itz edo idazten dan gipuzkoera; baizik osotua apaindua. Oŕetaŕako, euskaltzain'ak lan egin beaŕ dute: Aŕtu, bai bizkai'ko ta zubero'ko, ta bai napaŕ ta lapuŕdiko izkelgi edo izkerak dituzten edertasun ta obekuntza bereziak, eta gipuzkoaŕ izkelgiari ezaŕi.

Oŕela erabatuaz izango degu dagokigun idazkera, ta gure enda zaŕ ta zintzoaren omengaŕi izango dan euskera gaŕbiya.

Euskeraren Batasunaz

1.º Euskera batu beaŕik bai al dago?

Irakurgaiak indar aundia artzekotan beaŕezkoa da; beaŕezkoa da izkelgi bat Euskaleŕi guzian edo geinean aditzea. Euskerazko egunaririk esaz ta erderazko egunariak zoko guztietan sartzen diralako euskaldun ta euskalzale asko erderaz oldozten (pentsatzen) ta beraz euskeraz gaizki idazten oitu egin dira, beste euskalzale batzuk erderaz besterik eztute idazten, gaŕantzi andiko gauzetaz ezin dute oso gaizki besterik itz egin ta idatzi ta oŕegatik euskera baztertzen dute.

Egunaria beaŕ degu, egunari aundia ordea ta gaurko egunean zaila dana, izkelgi bat autatu ezkero eŕaztu egingo litzeke. Gaurko egunean askok beren eŕi ta txokoko euskera besterik eztu nai; izkelgi bat autatu ezkero besterik gertatuko da.

2.º Gaurko egunean Euskaleŕian jendea lenago baño geiago mugitzen da; bestetik euskaldun batzuk beste batzukin oso nekez alkar aditzen dute ta oŕegatik askotan erderara jo egin oi dute; izkelgi bat alde guzietara zabaldu ezkero ezta au gertatuko ala orain aña ezda gertatuko.

¿Zein autatu?

Bizkaiko euskera?

Bizkaitaŕak ta napaŕak alkaŕ gaizki aditzen dute.

Bein batean Napaŕuko nere lagun bat bizkaitar batekin Iruña'n itz egiten asi zan baño alkaŕ ezin adi-

tu... ta alde egin zuten euskaldunak ezpalira bezela. Nere lagun au Burunda'ŕa zan. Burunda'ko euskera da Napaŕan Bizkaiko euskerarekin antzik aundiena duan euskera.

Donibane Garazi'n emengotaŕak ta Bizkaitaŕak ezin alkàŕ aditu omen zuten.

Burundaŕentzat Bizkaiko euskera zaĺa bada zaĺagoa izango da gañerako napaŕ ta lapuŕtaŕenzat, are zaĺagoa izango da xuberotaŕentzat.

Beraz ez da Bizkaiera autatu beaŕ.

Lapurdiko Euskera?

Goian esan degunetik lapurtaŕak ta bizkaitaŕak alkaŕ aditzeko oso gaizki ibiĺiko dirala ateratzen da.

Bizkaitaŕak asko dira lapurdiko Euskera autatu eskero baztertuak bezela geldituko lireke.

Beraz ez da Lapurdiko euskera autatu beaŕ.

¿Xubero'ko Euskera?

Ezta ere Bizkaiera ta Lapurdi'era baño gutxiago aditzen da-ta.

Gipuzkoako euskera?

Auxe da geien aditzen dana Napaŕuan, Bizkaian eta Laburdin.

Bizkaian izkuntza ontan egindako itzaldiak aditzen dituzte, Napaŕuan ere bai, Lapurdi'n ere berdintsu izan bear du, auzoan dago ta.

Bera Gipuzkoera izkelgi guzien erdian dago ta oŕegatik da toki geiagotan aditzen dana.

Beraz au autatu bear da.

OYEREGI'TAR AITA BUENABENTURA
(Arbelaitz)

Euskerearen batasunatzaz

Gauŕko kalteak: ez artuemonik ez libururik

Euskelgien banantzeak ekaŕten dizkigun kalteak aundiak dira. Sakabanaturik gagoz izkeraz: Eŕi sakabanatua gera. Itzez ta idatziz alkaŕ-aditu, uleŕtu eziñik gagoz euskeldunak; eŕki-arteko aŕtu-emonik (relación inter-regional) ezin euskeraz euki.

Euskeraz irakuŕtea beti zaila, (eŕki, aldeŕdi, auzo bakotxan, idazle bakotxan ainbeste ezbardin dagola); irakuŕlerik ez, zer irakuŕtea be ez. Idazki gutxi; ta idazten danaren erdiaren erdia ez gurezat adigaŕi. Liburuen merkatua (Euskaleŕia aundi ez bada ere) txikitua; idazkiak karezti ta argitaldu eziñekoak.

Euskaldunakin itz-egiteko ta euskeraz irakuŕteko balio ez dun gure izkeria ezetzi ta ostikopean jaŕten dute guztiak. Zetarako ikasi? diñoe.

Erderara yo beaŕ ¡Geroago ta geyago azitzen dira-ta eŕki-arteko aŕtu-emonak ta irakuŕteko egaŕi ta beaŕtasuna. Euskeraz ez libururik, ez eŕki-arteko artuemonik! Kalte oneek, batez be, ekaŕten dizkigu gure izkeraren banantzeak.

Zikindu, txirotu, il

Eŕderai indaŕ ematen die gure izkelgi-banantzeak; gure itzai ta izkerari kendu. Euskerea *zikindu*, *txirotu* ta *ilten* du banantze oŕek; erderazko itz beti-batekoak ta izkera baŕdiña nagusi beti.

Zenbat eta sarriago gauza bat barrdin entzun, ikusi, irakurri, esan, errazago ikasten dala. Oroimenaren *lege* bat da. Era ezbarrdin guztietara or, emen, an entzuten ditugun euskel-itz gizagaxoak erderaren abots berrdiñak ixildu ta aiztu-erazoten ditu. Bat burura sartu zaigula, beste bat urten; errazago itz bat ikasi, oroitu, bi, lau, bost bañ, gure txikitasunaren beste lege bat da. (Ilbeltza-Urtarril'a, Otsail'a-Zezeil'a & ginituen atzo; Enerue, Febrerue & gaur; Bizkayan beintzat, iztegi berezi geyena galtzen dau erriak).

Bardindu gabe, euskera txirotu ta zikinduten da; euskerearen aldez egin leiken lenengo lana bardintzekoa da; au gabe, garbizale ta aberastasun-zaleak egiten dituen guztia, alperiko ta keltegiña. Euskelgi berri bat edo batzuk egiñik, euskerea zaildu ta gorotagarri egingo dute.

Euskelgiak nora dijoaz

Izkelgi bereziak izatea kaltezkoa izan da beti; gaur, ezurretarañ erderea sartu ta *berdin, beti bateko* izatea, ilgarria. Urtebetean artzen ditugun kalteak, len 100 urtekoak bañ aundiagoak dira. Guretzat beste biderik ez dago gaurko bizitza laisterean: euskera bakar batera joan laster edo erdera bakar batek lurpetu.

Euskereaz batera yoango dira euskelgiak, euskerea ondatzen bada. Euskerea bizi dan artean, berez naastu ta ilten dirala dagusku. Baruko artuemon bizkorretan bizi dan Erriak euskelgiak ez ditu lagatzen, zaitzen; bi, iru, lau izkelgi, bi, iru, lau itz bakoitza esateko ez ditu ikasten Erriak ala aiztuten ditu. Erizatien banantzetik, bakartetik izkelgiak sortu ziran aintziñan; Eria estu-alkartuten asi danetik, izkelgiak

naastu, ala bat nagusitu ta beste guztiak ilundu ta ezagertuten dira.

España, Italia, Alemanian, edozein Eŕitan, izkelgiai yazoten zayena, ori da. Liburuetan batez be, españera edo gastelera bat Españan ta eŕbestean; italiera bat Italian; izkelgi bakaŕ bat Alemanian, Englanden... Ameriketan, eŕki batzuetako euskaldunak euskeraz alkartuten diran edonun, bardin.

Beaŕez ilgo diran euskelgi kaltegin oriek, iñok aldeztuko ditu gure artean?

Auzokoari begira

Buruak ez berotu; asaŕerik ez egin. Urkoaren utsak ta osabideak eŕazago ikusten dira: geu arkitzen geranez Prantziakoak dagozala asma irudi-zazute; miĺa *patois* edo izkelgiz beterik, nagusi iñor ez dala... Itzez ta idatziz sakabanaturik egongo litzake, Eŕki edo Probintzien artean artu-emonik gabe; Prantzia ta Erbestetik zabaltzeko liburu gabe...; izkuntza ta idazkietan auzokoen izkerak (alemana ba ezpada) nagusi. Gauŕko prantzera aberats ta edatua, orduan Eŕialde txiki batean itzegiteko gauza izango litzake, liburu gutxi batzuk irakuŕtzeko gaia... ¿Prantzes ori orduan nok ikasi nai, nok irakuŕiko leuke?.

Oŕ ba; zentsunezko abots bat Prantzian entzun dala «¿Zuen izkera ta Eŕia maite ba dezue, beraz alkaŕ-aditu nai izan ezkero, zetarako patois guztiak zaindu, ikasi, patois guztiz baliatu beaŕ? Indaŕ geyen duanari, geyen zabaldurik dagon patois eri lagundu; Eŕki-arteko artu emon guztietarako bide bakaŕa izan bedi aura; zabaldu ta erbesteratu nai dituzuen liburu ta idaztietarako bere bai.»

Deia entzun, ta eŕazoizko bide ori aŕturik, aldi

gutxi baŕu Prantziako nagusi ta liburuz aberatsa, gaurko eraz, erdiko *patois* bat ez ote genduke ikusiko?

Beraz, prantziatarak egingo ebena, geuk egin bear degu; indar geyen duan gure izkelgiari lagundu. Albait lasteŕen; gauzak berez yoaten ez utsi. Bear degun osabidea artzea gure eskuetan dago. Euskera maite degunen eskuetan dago liburu ta idazkietan euskelgi bat nagusitu, *Erki-arteko* artu-emon guztietarako autu. Irakuŕlerik galdu gabe, geitu baizik, nekeak gutxitu.

Euskera eŕazena

Eŕazago izango da ori Eŕiak itzegiten dituan izkelgietarik, zabalduen, urkoen, ezagutuena izan ezkero, indar geyen duana; Euskal-eŕiko erdian aurkitu ta artuemon geyen duan Gipuzkoako izkelgia bada. Nagusitseko lanaren erdia egiñik izango genuke.

¿Eŕiak itzegiten ez daben izkelgi baŕi, zaŕ ala oraingoen naaste bat, nok noiz atondu, geyenen gogora soŕtu ta zabaldu?

Gure Eŕiko mutuŕetan dagoz Bizkai ta Zuberoko izkelgiak ta euskeldun geyenai zaĪenak irakurten zaizkie. Erditik ain uŕun ez ba dago Laburdi ere, Bidasotik onerako euskeldunekin artu-emon aundirik ez dauko; ango izkelgia Gipuzkoakoa baño nekezago izaten zaye.

Eŕiko euskerea; gaŕbikeria ut!

Egiña dagon Gipuzkoako izkelgia oñazpi ta eredutzat artu bear dogu ba. *Gipuzkoako eŕiak gaur itzegiten dutena izango da* geyenez, euskeldunen artean eŕaztasun geyen aurkitu dezan.

Begi-auŕetik eŕaztasun ori kendu gabe, zerbait arautu ta oŕaztu, garbitu ta aberastu leike, zurtasun aundiz baña, gaurtik batez be.

Eŕiak egiten duan izkeratik zenbat eta geyago aldendu, nekezago izango zayo; Gipuzkoan bertan ezezagun izango litzake euskelgi *erdi-baŕi* ori; beste erkietan ezezagunago. Batasunaren eragozpenak geiturik, garbitze ta aberastasun ez-egoki oŕeek Eŕira ez litzakez elduko. Batasuna lenengoz bear degu; izkera txirotu ta bananduten ditu banantzeak: bizi-izatea lenengoa da. Izkera bat bardin itzegiten dutenen neuŕira, indaŕtu ta aberaztu leike: aek asko izanaz, asko; gutxi izanaz gutxi edo batez. Nekez eŕiratzen dira iztegi baŕiak; gutxi irakurten dan Eŕian nekezago. Eŕia erakusteko eskubide ta almen gustia galtzen dute idazle garbizalegiak.

Lanbide ta Elerti iztegi aundi bat Eŕiari nekez erakutsiko zayo. Eŕi yakintsuari be ez. Aberatz ta yakintsuen artean erderea noraño sarturik dagon uaŕtu dezagun; 2 ala 3 izkeraen jabe izateak (ala beaŕez gaur) norberaren iztegia txikituten dula. Lanbide, jakintza ta *kultura*'ren itz geyenak eŕi-arteko (internacionales) egiñik dagoz edonun, egokitasunez ta beaŕez, nai-naiez.

Eŕi ta izkera auŕeratu oek baño geyago zelan izan? Oen izkera baño zikiñago ez da izango gurea. Baseŕitaŕ ta aŕantzaleentzako izkera baizik gaur ez ba da gurea, ori bera beste Eŕietan yazo zitzayen atzo; eŕbesteko iztegiz bete ta apaindu ziran. Gureak ez diran itz asko geuretu bear doguz; geureturik, egitez, asko daukaguz. Oneek yaurtitzea, oraingo ta lengo izkelgien aberastasun guzia piztu ta zaintzeak bezela, gure eskuetan ez dago.

Itz asko galdu nai degula ez aŕpegira bota, gero;

eurek galtzen dira. Benetan, euskerea beaŕ zan baño geyago aberastu zuan izkelgien banantzeak; il ta zatituten gaituzan aberastasuna galtzea ez da negar-egiteko.

Noiz, nola. Alpeŕiko ezbardintasunak Kanpora!

Euskeraren kalte gabe, Gipuzkoako izkelgia nagusitzeko *noiz*, *nola* yakin bear degu; noiz *osoro*, noiz *zatika*, nola ordun *ezbardintasunak gutxitu*.

¿Euskeraz beti beti bardin idaztea, gipuzkoeraz gaurtik beti, ez litzaleke izango egokia? Beste izkeretan yasoten dana begiraturik, ala dirudi; euskeraz baño erderaz (adibidez) asko lenago ta obeto irakurten dute euskaldunak; erdera gutxi-jakiñak ere bai; itzak bardin ikusi beti, aekin *begiak eŕaz oitu ta* ikasten dituelako. ¿Erderaz yasoten dan ori, gipuzkoera eŕaz bakaŕ bategaz ez litzateke loŕtuko? Irakurleak ugaritu, idazkiak geituko lirake, irakuŕteko zaletasuna ere bai.

Eretxi oŕetan, baña, ez naz leyatuko; Askoeri gordiñegia irudituko zayela badakit.

Ezbai gabe, *osoro*, au da gipuzkoera utsa, erabiliko da, *Erki-arteko araẓo ta liburuetan*, euskaldun *geyenen artean* zabaldu nai ditugun idazkietan (azken au, merkeena ta egokiena izanaz berez, ez genduke esan beaŕ). *Gei sakondun idazkiak*, *ingurti ta idazki karuak*, *irakurle onak* eskatzen dituen guztiak, erkiartekotzat izan bear ditugu; Erki-bakar baten irakurlerik ez dute aurkitzen. Euskelgi batera jo beaŕ degu euskeldunak itzez ta idatziz beste anayakin alkaŕuleŕtzeko *Lenago ikasten dalako euskelgi bat, 3-4 ala geyago baño;* norberena ez dan bategaz adizkidetzea nekeza ez da; guztiakin eziña: (Iztegia ondoan,

gaur bear dute irakurteko euskalzalerik onenak). Euskelgirik-euskelgira dabiltzan guzientzako, eŕaztasun aundia bat yartea.

Eŕki-arteko artuemon ta libururik ez da egongo bestela gaurko eraz.

Erki bateko irakurle txaŕakin (Erki-baŕuko idazkietan) *bertako izkelgia bear dan beste, geyago ez, erabiliko degu.*

Ogia baño geyago bear dogun bardintasunara eltzeko, gipuzkoako izkelgi nagusia al degun guztietan erabili bear degu: *Erki-baŕuko* idazkietan be bai. Ulertzen dan neuŕira; osoro ulertzen ez dutenai zatika itz-egingo diegu; oei gipuzkoerazko itz guziak ez dizkiegu esango; eurentzako adigaŕi diranak baizik, ez besteak. *Alpeŕiko ezbardintasunak* baña, iñoren eŕeztasun gabe, euskal-idazkiak banandu ta zailduten dituanak, kanpora yaurti ditzagun.

Idazki guztietan bardin erabili bear dira Ortografia ta *fonetika, itz baŕi* ta *biztuak.* Oŕeetan ikusten ditugun gaurko ezbardintasunak, iñori be ez lagunik ez dio egiten, eragospen aundiak baizik ez dira guztientzako. *Ikatz-iketz, aretz-aritz-arotz, naiz-naz, daitela-ditela,* etc., miĺa ezbardintasun txikitzaz bardin diñot.

Azpi-izkelgi (subdialecto) ala *auzo-izkeraen ezbardintasunik ere ez degu bear;* gutxiri eŕaztasuna emongo die, nekea bai geyenai. Bizkayera bat baño geyago ez dute beaŕ Bizkaiko irakurle gutxi-yakiñak; al dan bardiñen idatzi ezkero, begiz ta buruz irakurteko oiturea obeto artuko dute.

Bizkaiko euskeraz Laburdin, laburdieraz Bizkayan (eta abar) idaztea ez litzake biderik egokiena izango euskerazko irakuŕgeiak zabaltzeko, euskeldunak alkaŕ-ulertzeko be ez; lau edo bost izkelgi

ikastea, irakurtzea, gaitza ta eziña izango da beti; gipuzkoerea bakarik Erki guztietara sartzea erazagoa izango da noski ta euskaldun guztiak alkartzeko naikoa.

Batasunaren bidea erazturik

Ezbardintasun alperikoak kendu ezkero, euskelgi batetik gipuzkoerara dagon urintasuna sinistu eziñala laburtuko da; irakurtzea guztiz eraztu; gipuzkerea igari gabe ikasiko du edozein euskaldun irakurlek. Gipuzkerazko idazkien eraztasun ta ugaritasunak irakurle guztiak beraganatuko ditue. Gaur baño miła bidez obeki egingo da ori gipuzkoar azpi-izkelgi (subdialecto) bat baño geyago erabiliko ez dan egunean, idazkiak iluntzen dun garbikeria, bein ta betiko yaurtitzen ba degu; aberastasun aro ta kaltegiña gaurtik aldera utzitzen ba degu.

Gipuzkeraren berezko ezbardintasunak (diferencias esenciales) oso txikiak dira. Naiezka guk ez ba ditugu geitzen, Bizkaitar irakurleai gaur geyenetan idazten dan bizkayera garbiak baño neke gitxiago emango die. Idazti lau, erazak, ugaritu; euren geiak *maitegari*, *egoki*, *bearezko* izanaz, ta Euskalerriko bazter guztietan erogospenik ez du aurkituko gipuzkoereak.

Euskelgi ori edonun zabaltzeko alegiñak egingo dira; batez be zenbat eta geyago argitaldu bere idazkiak. *Dei bat euskaldun on guztiai* egingo zaye ikasita erabili dezaten, itzez ta idazkiz al duten beste. Ikastolaetan ere bai, baña zurtasunez; Erki batzuetako euskaldunak biltzen diran tokietan gipuzkoeraz bakarki irakatsiko da; euskera galdu dan erietan ere bai. Edonundik zabalduko dau Euskalzaindiak gipuz-

koeraren *iztegi* berarizko ta *gramatika* labur labur batzuk, beste izkelgi bakotxaren ikuŕak azaldurik. Zuzendariak ere bai yaŕiko ditu Euskaltzaindiak liburu ta beste idazkiak bere araura argitaldu ditezan ta yayotzez beste izkelgiko diran idazlei laguntzeko.

Erantzuteko itz batzuk

Emen agertzen ditudan asmoak orain baño astiroago *La Unificación del Euzkera* erderazko idaztiño ta beste leku batzuetan astiroago azaldu nituan aspaldian. Kontrako eretxiak agertu dituenai itz labur batzuk baizik ez orain.

Euskelgien banantzeak irakuŕlentzako gaŕantzirik ez duala, diñoe batzuk (nik, beintzat, olako irakurle onik euskaltzaiñen artetik ere ez det aurkitzen...) Greziako izkuntza izkelgiz josita bezela *gizaldi askotan bizi zala;* idazle bakotxak bere izkelgiz, edo nai zuan nastez, idazten zuala... (Grezia, Italia, Alemaniako izkelgiak *orain* bizi ote dira? Gaurko tren-bide, aeroplano, libururik ote zegon? Zenbat iŕakuŕle? Zorionezko aldi oŕietan gu baño astiroago ta bananduago bizi izaten ziran!

Ikastolaetan, Elizetan, edonun, gipuzkoereak aurkituko dabezan eragospenak geitzen ditu beste batzuk; arpegira yaurtitzen digute. Aditu bear dute oŕiek, baña, *Eŕki baŕuko* arazoetan ta irakurle txaŕentzako idazkietan bakotxari berea ulertu dezan eraz ta neuŕiz, itzegin beaŕ zayola gaurtik, nire eretxia dala. Bear degun guztietan bakoitzari berea; nekez adituko dun idazki ala itzik ez.

Bakoitzari bere izkelgiz egitea, baña, askotan, eziña izaten da; Erki bakar baterako idazkiak argi-

taltzea karestiegia. (¿Bizkaiko euskaldunentzat bakarik egunoroko izparingi bat nola atara?); Bizkayan, (adibidez) bizkaitar sermolari, batzar-izlari, idazle edo irakaslerik ezin izaten da askotan atondu; bizkaitar, gipuzkoarak, etc. bilduten diran ikastola, jai ta lekuetan, guztien gogora itzegin, idatzi ezin..., ta au, bizi geran aldietan, egunoroko leloa da.

Uartu dezagun; erki-arteko artuemon ta bitarteak egunoro deitzen dira. Bizkayan bizi geranak bizkaitarnotin ta idazkien artean ez gagoz. Beste Erkietako euskaldunakin naastean bizi gera gaurko euskaldunak ola ta kaletan, gudaritza, Unibersidade ta ikastetxetan, erkian ta bideegitean, gure eri ta erbestean. Ibiltariak gogoz, ekanduz ta bearez gera guztiok; aberatz naiz langileak, itxas-gizonak naiz baserritik ataraten diran mutil ta nesk-otseiñak. Euskera batera yo bear degu guztiok itzez eskaldunak izateko.

Irakurteko egari ta beartasuna Erkiko idazki gutxigaz ezin izaten zaigu asetu geyenai; kanpoko ingurti, egunoroko, edonungo liburuak bear doguz; saltzale, egileak (saltzeko-bear ta gogo dute ta) etxera sartzen zaizkigu. Erkirik-erki dabitzan idazkiak, (batez be) gipuzkoartu ta bardindu ditzagun, ala bestela ez ditugu irakuriko. Batzuk, bestela, gure bizitz guztia eman bearko degu euskeraz neke gabe irakurteko; euskerazko idazki gogaikariai betiko agur egingo dioe geyenak.

Nekeztasunak dituala euskal-batasunak? Bai noski, mirari bat gabe euskeldun guztiak euskera bardin bat, batera ezin leye erakutsi. Eragozpenak bai ditu, baña bearezkoa da; eragozpen oriek barez, audiagoak ezdira, gaurko ezbardintasun ta garbikeriak dituanak baño.

Euskera bardindu bear degu, al bait lasterén. *Gipuzkoa'ko euskelgia ala erdera bardiña;* guretzat beste biderik ez dago.

BELAUSTEGIGOITIA'TAŕ PERDERIKA.

Durango 15-1-1921.

EUSKERA IDATZIAREN BATASUNA (1)

Euskaltzale batzuk, batasun oŕegaz, beste barik be, euskera bizkoŕtu ta indaŕtuko litzakela uste dabe: beste batzuk, batasun ori euskerarentzat osoro kaltegaŕi izango litzakela-ta, gogo ta biotz batasun oŕen auŕka dagoz. Euskeltzale-Bazkuna'koak euskeraren *mozketa izugaŕia* izango litzakela diñoe. Euskeraren batasuna, mozketa andi nai txiki barik be egin leikela dirudit: baña batasun ori, beste ezer barik, euskera bizkoŕtu, indaŕtu ta sendotzeko, naiko izango litzakela nik ez dot uste. Euskaltzale-Bazkuna'koak abeŕtzaletasunaren indaŕa aitatzen dabe. Nik, indaŕ ori ta daukaguzan beste indaŕ guztiak batu ta alkaŕtu aŕen be, euskera bizkoŕtu ta osasun onean ipinteko, loŕik asko izango dogula deritxot: augaitik euskeraren bizitz oso ta osasun mardoa nai ba-dogu, umekeriak alde batera itxi, geure indaŕ guztiak alkaŕtu ta elburu oŕetara zuzendu beaŕ doguzala diñot.

Euskeraren batasuna egitea, urte askotarako lana dala edonok dakus; baña urte askotarako diran lanak, uŕengorako itxi barik, biar baño gaur asi obe da. Garean euskaldun gitxi-gitxiok, beste izkuntza idaŕtsu bi darabiłezan eŕi andiz inguratuta gagoz; ertz guztiak artu dauskuez, alde guztietatik euskerari saka ta bultz egiten dautse. Oŕelan gagozala, geuk euskaldunok ondo alkaŕ aŕtu barik, geure indaŕ oro euske-

(1) Lan mamintsu ta sakon onen egiłea Eguskitza euskaltzain jauna da ta 1921'gaŕeneko Joŕałean Euskaltzaindiak izan ebazan batzaldietan irakuŕi ebai.

raren alde batu barik, luzaro eutsi ta iraunazoko dautsagula uste daunak, begiak zabalik asmes dagi. Anbiola ta gaurko aldi au ez dira bardin: gaur erdera edonondik, edonorekin, edonoz eta edonoraño, basetxe ta mendi galuŕetaraño sartzen yaku. Euskaldunak erdeldunen ondoan; lau aldêtatik estutzen gaituen erdeldunen aurez-aur, gitxi-gitxi gara: geure artean euskalkiz banatuta gagoz: onelan banatuta beti ezin jaŕaitu geinke; baña noz edo bein alkaŕtzekotan eta batasuna urte askoren buruan baño egin ezin leiken lana dan ezkero, len-bai-len bide ori artzea ta pizka-pizkaka aurera jotea, asmorik zûr eta egokiena dala dirudi. Iru-lau euskelkiz banatuta gagozan euskaldunok euskera bardiña ba'geuko, alkaŕ obeto uleŕtuko geunke: euskerazko idazki bakotxa askozaz geyagok irakuŕiko leukê ta euskerazko idazki geyago argitaratzeko be, irakurle geyagogaz, orain baño ereti obean gengokez.

Euskeraren alde, oŕ-emen daukaguzan indaŕ guztiak batu ta alkaŕtu beaŕ doguz: ori ta guzti be euskerari indaŕ emoteko, lanik asko izango dogu, baña indaŕ guztiak alkaŕtuta dagozala esan al-izateko, euskaltzale orok euskeraren alde lan-egitea ez da naiko. Euskaltzale-aldra bakotxa, bere aldetik eta nai dauen alderantz indaŕka ba'lebil, emendik urte batzuetara, gaur gagozan baño be banatuago egotea, eŕez jazo daiteke. Bide batetik ez dabiltzanak, gitxitan alkaŕ aurkitzen dabe.

Elburu batera joten ez daben indaŕak, alkaŕtuta dagozala zoroa ez danek ezin esan lei: baña elburu ori zein dan jakin barik, ara indar guztiak zuzendu leikezan amen-umerik ez da jayo: augaitik euskera batasunerako bidea aŕtu baño len; gai onetzaz ezetan asi baño len, geure elburu ori zein dan, nora joan nai

dogun ebatzi beaŕ dogu: gaurko euskalki guztien nâste izango dan euskalki baŕia asmauko ete-dogun ala daukaguzan euskalki oneitatik bat-edo-bat aŕtuko dogun eta au egitekotan, euskalki ori zein izango dan erabagi beaŕ dogu.

Len daukaguzan euskalkiak be laŕegi dirala-ta, baŕirik iñok ez dau nai. Zein autetsiko ete-dogu ba? Onetarako egokiena gipuzkoako euskalkia litzakela geyenak diñoe. Onen alde ziorik asko dagozala uste dot. Euskalki au darabilen euskaldunak, beste enparauen erdian dagoz: Bidasoz emendik darabilguzan euskalki guztien artean, erdereak azkenen ito daikena, orixe dala dirudi. Beste euskaldun guztioi bide-erdira urteteko dei-egiten dausku: beste enparauekin kidetasun eta antzik geyen dauko; euskaldunai beste edozein euskalki baño eŕezago saŕtzen yake. Euskalki guztietako euskaldunak batzandu diran tokietan, ori ikusi da: gipuzko-euskalki ori berez nagosi egin da ta gipuzkoaŕakin luzaŕotxu egon diran beste euskaldunak, euren eŕietara etoŕi-ta gero be, euren euskalkia baño gipuzkoaŕena geyago erabili oi dabe. Euskeraren batasun ori Euskal-eŕiarentzat ez izatekotan, alpeŕeko lana da: baña gaur egunean gipuzkoaŕ euskalki ori beste edozein baño euskaldun geyagok darabile-ta, beste edozein baño eŕezago zabalduko litzake: augaitik euskera-batasunaren jasointzat gipuzkoaŕ-euskalkia aŕtu nai dauna oŕen auŕka dagona baño zuzenago dabil.

Euskeraren batasuna urte askotarako lana da: gauŕ, noz-edo bein ara eltzeko asmoz, bidea artu baño besterik ezin egin geinke. Gure elburu euskera garbi, txukun, ornidu ta aberatsa da: baña gauzak dagozan lez artuta, amesetan asi barik, elburu oŕetara joteko biderik egokiena ¿zein izango ete-da?

Arau batzuk irakuŕiko dautsuedaz: egokiak diran ala ez zeuek esango dozue:

1.ª Araua. Euskalki bakotxaren batasuna egiteko asmoa, ona da; oŕetarako egiten dan lana, euskararentzat onuratsua izango da, lan oŕegaz euskalkiak alkaŕgandik uŕindu ezik.

2.ª Euskera osoaren batasunari jaramon barik, euskalki bakotxarena egiten ba-giñardu, euskalkien batasun ori lortuko litzaken egunean, oneik alkaŕgandik gaur baizen uŕin legokez eta euskalgi-zaleak nai daben lez egin ezkero, gauŕ baño be uŕiñago: augaitik euskalki bakotxaren batasunera joteko asmoz, lanean diardugun bitartean, euskera osoarena geure gogo ta begien auŕean beti euki beaŕ dogu.

3.ª Euskera osoaren batasun ori nun eta zelan egingo dogun ebatzi ezik, gogo ta begien auŕean ezin euki daikegu ta zuzen ala okeŕ gabiltzan ezin jakin geinke: augaitik batasun ori nun eta zelan egin nai dogun, ezetan asi baño lenago erabagi bear da.

4.ª Euskalki baŕirik asmaten ibiltzi barik, daukaguzanen bat-edo batera jo beaŕ dogu: euskeraren batasunerako biderik zûŕ eta egokiena auxe dala orok autoŕtzen dabe.

5.ª Gipuzkoaŕ euskalkia batasun oŕen eŕo ta jasointzat aŕtu geinke: Gipuzkoan ori bakaŕik, beste eŕietan bertokoa ta ori erabili beitez, besterik ez.

6.ª Euskera batua ta euskalkiak noz eta zelan erabili jakiteko, zelako euskaldunak daukaguzan gomutau daigun. Euskaldunak aldra bitan banandu daikeguz: euskera irakuŕten dabenak eta ez dabenak.

7.ª Azkenengo onein artean batzuk irakuŕten ez dakie; beste batzuk euskerari igin eta goŕoto dautse; beste batzuk goŕotorik ez, baña maitasun apuŕik bez;

azkenez beste batzuk euskera irakuŕteko oiturarik ez daukelako-edo nagi dagoz.

8.ª Euskeraren batasuna egin nai dogula esanaz nai bakotxaren euskalkiz eta euskera mordoĺoz idatziaz beste barik, oneik euskerazko idaztiak irakuŕten ipiñiko doguzala uste ba-dogu, okeŕ gagoz.

Bada-ezpada, nagien artekoen batzuk bizkoŕtzen diran ala ez ikusteko, oŕeintzat zerbait euren euskalkiz eta euskera eŕezean idatzi beaŕ dala dirudi; baña gauza andirik ez, oŕeiketz onura gitxi itxaron daikegu-ta.

9.ª Euskera irakuŕten dabenakin be, aldra bi egin daikeguz: euskaltzalena ta irakuŕle soiĺena. Lenengo aek euskera irakuŕi ta idatzi, ikasi ta landu egiten dabe; bigaŕen oneik irakuŕi ta oŕelan lendik dakien baño zerbait geyago ikasi, besterik ez.

10.ª Euskera bizkoŕtu nai ba-dogu, euskera gatxa erakilten dogula ta, beti mormoxetan diarduen euskaldun epel, alper eta nagiai jaramon gitxi egin bear dautsegu, oneik lagun doguzala, ezertxu be ez dogu egingo-ta.

11.ª Euskera bizkortu nai ba-dogu, gazte ikastunak, euren ikastaroa oraintsu amaitu daben eta oraindik arlo oŕetan dabiltzan euskaltzale gazteak, beste iñor baño lenago geure lagun egin eta saiĺean sartu bear doguz.

12.ª Indaŕ nagosia oneiketz dator: baña oneik euskera txukun apain eta aberatsa nai dabe; adiñak asmau daikezan gogapen oro, biotzak sortu daikezan gurari guztiak, beste edozein erderetan baizen ondo ta egoki adierazteko gai izango dan euskera nai dabe.

13.ª Augaitik jasointzat aŕtzen dogun gipuzkoaŕ euskalki oni, beste euskalkien aberaskiz albait geyen osotu, oŕnidu ta apaindu beaŕ dala dirudi. Onelan

beste euskalkien itz oitu ta zâr guztiak, batzuetan orain dauken ikuŕpenarekin, beste batzuetan ikuŕpen ori pizka bat aldatuta euskalki onek beretu beaŕ ditu, ezetarako izan daiken *ezeri* be galtzen itxi barik.

14.ª Au egin aŕen be, landeŕ asko izango da-ta, edozein erderaz adierazo leiken guztia, euskeraz be adierazo al izateko, beaŕ dituan itz baŕi guztiakin ornidu ta aberastu beaŕ da.

15.ª Baña askok itz baŕietzaz neuŕia ipiñi beaŕ dala diñoe. Nik be ori uste dot; baña neuŕi ori irakuŕi dodan lez barik, beste era baten ipiñiko neunke.

16.ª Antziñatik euskeran sartu yakuzan eta euskal-antz eta usaña artu daben itz aŕotzak jaurtiteko asmoz, itz baŕiak asmaten diñardugu. Oraingo aldi au oŕetarako aldi ona ez dala uste dot: ori, beste zeregin andirik ez daukagunerako itxi-ta, geure egun oneitan auzotik datoŕkiguzan itz aŕotzai bidea saŕatzen ekingo ba'geunskio, euskerak askozaz geyago irabaziko leuke.

17.ª Onelan ba, antziñatik saŕtu yakuzan erdelitz zaŕai bein-bein geldi itxita, geyago ta geyago saŕtu ez dakiguzan, euskal-itz zaŕak idoro, beaŕ diran baŕiak soŕtu ta zabaldu beitez.

18.ª Itz baŕiak soŕtu orduko, beaŕezkoak diran ala ez astiro ta ondo begiratu bedi: edozein euskalkitan itz zaŕik ba-dago, oŕen ordezko baŕirik ez da beaŕ: itz zaŕa bere otsak pizkaen bat aldatuta, egokia ba'litz, baŕia baño obe litzake; itzaren ikuŕpena bere otsak aldatzeka eŕez edatu ba-lei ostera, ori egitea zuŕago izango dala dirudi.

19.ª Itz zaŕik ezpa-dago, euskal-eŕo ta zustrayakin baŕiak soŕtu beitez; al dala, gipuzkoaŕ itz zaŕen antza emon bekioe.

20.ª Beaŕ doguzan itz baŕi oro euskal-zustraya-

kin sortuten ibiĺi barik, beste erderak aŕtzen dabezan ituŕitik, berein artu daikeguzala deritxat; baña euskal-abotseta edo izpiakerea aŕerazo ezkero, itz oŕeik euren erea laŕegi aldatu ta antzik geyena galdu beaŕ ba' lebe, oŕein ordezkoak euskal-eŕotik atera obe litzake.

21.ª Gauza baterako itz baŕi asko erabilteak, nâste ta kalteak baño ez lekaŕke-ta, zeintzuk erabiĺi ta zeintzuk baztertu erabagiko daun Batzordea ipiñi bedi.

22.ª Beŕogei urtez onantza, zuzen ala okeŕ ainbat itz baŕi sortu dira; itz baŕi oneitatik asko saŕi erabiĺi dira-ta, euskaldun guztiak ez, baña askok ezagutzen dabez; augaitik txarto eralduta dagozala argiro ikusi ezik, itz baŕi oneik onetsi ta artu beaŕ doguz, euren ordezko baŕiagoak sortuten ibiĺi barik.

23.ª Euskalkien arteko alde nagosiak aditzekoak dira: aditzeko alde oneik batasunera ezin ekaŕi geinkez.

24.ª Gai onetan auxe bakaŕik egin leikela dirudi: gipuzkoaŕ aditz-jokoak era bat baño geyago daukazanean, beste euskalkietako euskaldunentzat eŕezen izango diran erak autetsi, gipuzkoaŕen kalte andi barik egin ba-lei beintzat.

25.ª Esandako ori lekot, gipuzkoaŕ euskalkiari berea daun aditz-erarik ez dautsagu kendu ez aldatu beaŕ; baña berak ez daukazan aditz-erak beste euskalkietatik aŕtu ta oneikin osotu ta aberastu beaŕ dogu; au egin aŕen euskaltzale ta euskal-ikasle diran euskaldunak eŕez ulertuko dabe.

26.ª Onelako irakuŕlêntzat idatziko dabenai, euskalki oso ta apain au euren idazkietan erabiĺi dagiela eskatu beaŕ yake.

27.ª Ori egiteko, irakuŕlên aldetik eragozpenik ez dala izango uste dot; baña idazlên aldetik bayetz

dirudi. Bere euskalkiz idazle trebea danak, gipuzkoaŕ-ez eŕeztasunik ezpa' leukota euskalki onetan idaztera beaŕtuko ba' gendu, ori euskeraren kaltean izango litzake.

28.ª Augaitik gipuzkoaŕ euskalki osotua erabilteko eskakizun ori ondo dago; baña bakotxari bere euskalkiz idazteko eskubidea gitxitu barik. Gipuzkoeraz erdiz-erdi ta bere euskalkiz ondo idatziko daula uste daunak, berea erabiĺita geyago egingo dau.

29.ª Euskal-irakuŕle baño ez diran euskaldunentzat euren euskalkiz idatzi beite.

30.ª Lan onegaz euskalki bakotxaren batasuna biĺatu beaŕ da; baña eùskalkien batasun au era bitan egin lei: eredutzat aŕtzen dogun euskalki osotura uŕeratuz eta uŕinduz.

31.ª Uŕinduz egitea batasun osoaren kaltean izango litzake: augaitik euskaltzale ta euskalari ez diran euskaldunentzat idazten dabenai, eŕiak ondo uleŕtzen dituan gipuzkoaŕ itz eta aditz erak erabiĺi dayezala eskatu beaŕ yake, beste edozein euskalkiz idazten dabenean be bai.

32.ª Eŕiak osoro nai erdizka galdu dituan aditzerak beŕbiztu nairik idazle askok gŏgoz lan egiten dabe, eŕiak darabiltzanak beste euskalki batenak dirala-ta. Oŕetan ekin baño, noz edo bein euskaldun guztiok aditz-joko apain eta aberats bakaŕ bategaz gelditu gaitezan lan-egin obe litzake; euskerari osasun eta bizitza sendoa emoteko eun bidar obe. Ibiĺi ta ibiĺi idazleak ori ezagutu ba-dagie, euskeraren alde zerbait egingo dogu: bestelan gauza gitzi.

33.ª Euskalkietan idatziko dabenentzat beste arau batzuk ipiñi leiz: baña len aitatu dodazan oŕeiz gañera, araurik onena auxe dala uste dot; idazleak norentzat idazten daun beti begien auŕean euki begi:

irakuŕle aldra bakotxari, beŗetzat egokia dan gaya, ondo uleŕtuko daun eran azaldu begio.

34.ª Batzuk *zu*'ren ordez itano sartu, *zuek*'en ordez *zu* erabīli ta *zuek* bearari dagokion aditz-joko guztia bein eta betiko bazteŕtu nai leukie; beste batzuk itanozko aditz-jokoa zokondora jauŕti. Lenengo aek nai dabena gaur egin ezin leiken gauzea da: bigaŕen oneik nai dabena,iñoiz egin beaŕ ez dana.

35.ª *Euskaldun baŕiak*. Euskerarik ez dakienak, euskera batu, ornidu ta aberats ori, beste gaurko edozein euskalki baizen eŕez ikasiko dabe; augaitik edonongo euskaldun baŕiai ori irakatsi beaŕ yake, batasunaren alde ezer egin nai ba-da beintzat.

EGUSKITZA.

EUSKERAREN BATASUNAZ (1)

Ona emen, gizonak, alik laburtxoen erakutsita, eŕiak onetarako azaldu dizkigun uste, eritzi ta gurariak.

I. Bilboko batzaŕean.

Bost izan ziran itz egin zigutenak: Gaubeka, Laŕakoetxea, Madariaga, Cortés ta Uŕutia. Gaubekak Bizkaiko euskalkia autatzea obetzat du; Laŕakoetxeak ere bai, bat artu bear izan ezkero beintzat. Madariagak ostera, euskaldi oroz bat egin al izan ezik, gipuzkera aukeratu bear dala uste du. Cortesek euskalki bat egoki eztala ta Euskaltzaindiaren egikizuna lau euskalki auŕenai indaŕa ematea dala esan zigun. Uŕutiatar Gotzonek «que se haga la unificación formal y no la material. No quiere supresiones ni destierros por decreto. A lo sumo admite supresiones en cosas muy secundarias y accidentales, como por ejemplo en las leyes fonéticas y en las llamadas por Sabino de Arana arbitrarias».

II. Donostiako Batzaŕean.

Bilbon bezanbat aburu entzun genituen Donostian ere; bost. Koruko Andre Mariaren ikastetxeko irakas-

(1) Txosten au ere aburuketa (plebiscito) arezaz gainerakoa da. Beronen egile Euskaltzainburu yaunak, Euskaltzaindiak 1921'ko Joŕailaren 26'an egindako batzaŕean irakuŕi zuan eta Euskaltzain oron aburuz, *Euskera*'n, beste txosten guzien ondoren, argitaratzea erabaki zan.

le batek euskera bakaŕa kaltegaŕia litzakela uste du. Eleŕti-idazkunetarako geroago euskera bakaŕa egokia dala esan zigun eta euskera bakar ori beste euskalkien aberastasunez ornitua ta Bizkai ta Lapurdiko aditzez biribildua bear degula gaineratu zuen. Ayengiz'taŕ Iñaki Abak, biotz-ilak alaitzeko ezin obeak diruditen burutasun bitxi batzuen artean, batasun onetarako Bizkaiko euskalkia autetsi bear degula agertu zigun. Belaustegigoitiak eta Garitaonaindiak gipuzkera aukeratzeko gogoa erakutsi zuten.

III. Lekarozko batzaŕean.

Bakartxo batek agertu zuan burua aburuketa (plebiscito) onetan: Amayurko Eŕetore argi Kruz Goyenetxek, Euskalki bat artzea, orain beintzat eztala egoki esan zigun.

IV. Hazpaŕengoan.

Lau erizle agertu zitzaizkigun ango batzar artan. Oyeregi'taŕ Aita Buenabenturak, beste izenez Arbelaitzek, gipuzkera aukeratu bear degula. Luis de Jaureguik ere berdin. Anabitartek euskeraren batasuna egokia litzakela ta batasun au egiteko edo gipuzkera edo beintzat Lapurdiko euskalkia artu beaŕ genukela. Lapurdiko seme argi Saint Pierre aphezak bere mintzoa nai luke onetarako autetsia izatea. Bere eritzi onen zurkaitz ta zioak zeintzuk diran eskuz yaŕita bidaliko zizkigula agindu zuen. Tamalez lan ori ezta gure eskuetara iritzi.

V. Bi urgazlen aburuak.

Nicolas Ormaetxeak onezaz orain urte bete lan eder bat *Revista Internacional de Estudios Vascos-*

en agertu zuan. (XI núm. I pág. 53-61). Ona emen irakurkizun oren muña. «Respetando opiniones, digo no obstante con franqueza, que no entiendo las soluciones tal como las proponen algunos (acerca de la unificación del lenguaje literario). A dos se reducen estas a mi parecer: la de formar una lengua literaria nutrida de la savia de los cuatro dialectos principales, o la de adoptar uno fijo, el que esté más extendido verbigracia. Comenzando por esta última se pueden advertir en ella tres defectos: el empobrecimiento de la gramática que traería consigo; la falta de frescura y espontaneidad en los escritores; y por fin, el no poder sacar de él sólo todo el partido literario que se pudiera del concurso de otros.»

Bigaren akats (defecto) au gure lankide Urquijok lenixoago oartu zuan, Ormaetxeak bere lanean aipaturiko itz auezaz: «tomada al pie de la letra esta solución (euskalki bat artzea) tendría el inconveniente de cerrar el camino a escritores de natural talento y aptitudes, que no se decidirían a escribir en un dialecto que no fuera el suyo, y en el que se verían privados de la frescura y lozanía, cualidades muy apreciables sobre todo en una literatura espontánea y popular como la nuestra.»

Gero anai Ormaetxeak galde au dakar. «¿En qué forma se deberá practicar pues la unificación sin adoptar ningún dialecto fijo ni limitar por selección la riqueza de todos ellos? Dando libertad a cada escritor para que en cada ocasión, género literario y otras circunstancias que se le presenten al escribir, escoja con tino y siempre con arte y use con prudencia sin acumularlas las formas más distantes y extrañas sin excluir ninguna. Esto hicieron los griegos: así dieron solución a un problema todavía más arduo que el nuestro.»

Beste gure urgazle argi ta trebe Ramón Menéndez Pidal jaunak Bilbon lengo urte-azkeneko mintzaldi guri mardul batean itz auek esan zizkigun.

«Y aquí ruego a los académicos de la lengua vasca permitáis a uno que hicísteis vuestro compañero, académico ya antiguo de la lengua española, que junto con vosotros discurra acerca de esa propensión que esporádicamente invade a todas las Academias.

Primer cuidado de la naciente Academia vasca fué la constitución de un euskera literario que sirviese de lazo de unión a todos los vascos de todas las provincias. Un sujestivo informe debido a la autorizada pluma de los señores Campión y Broussain, desecha la idea de adoptar uno de los cuatro dialectos literarios, vizcaíno, guipuzcoano, labortano y suletino, porque esto sería matar a los tres restantes, y no es posible que ningún académico decrete esa muerte, renegando acaso de su propia habla materna; desecha también la idea de crear un dialecto nuevo combinando los caracteres de los existentes, y halla como única solución posible una intermedia, o sea crear ese dialecto nuevo, pero tomando como base real uno de los dialectos literarios, por ejemplo, el guipuzcoano, al cual se agregarían cuantos elementos gramaticales y léxicos de los demás pudiesen avenirse con la índole del dialecto favorecido y sirviesen para enriquecerlo. «Cierto, añaden los informantes, que ese euskera unificado será lengua artificial», pero confían en que dejará de serlo cuando lo enseñen las escuelas y lo difundan los periódicos y los libros. Añádase que la Academia se propone también elaborar los neologismos destinados a expresar los conceptos modernos y se comprenderá que verdaderamente se trata de formar una lengua artificial.

Pero una lengua así ¿puede ser lengua de un pueblo? Creo que no, y por eso propondré otra solución diversa para lograr el mismo fin.

Hay que partir del principio que el lenguaje es ante todo un producto social, colectivo, un fenómeno natural que está por cima de los artificios convencionales de los gramáticos. Podrá la humanidad llegar a hablar una lengua única en siglos lejanos, pero no llegará a esa unificación inventando volapukes, esperantos, idos y demás mezclas de todos los idiomas. Podréis llegar a tener un euskera literario único, pero ese no será obra momentánea. Fácil relativamente es hacer en un libro para uso de unos cuantos escritores una combinación del guipuzcoa-

no y labortano y proveerla de perfecciones de otros dialectos; pero esa creo no llegará nunca a ser la lengua de un pueblo.

Pero aún más. Figurémonos que eso, que yo estimo imposible, se realizara, y que las nuevas generaciones del pueblo vasco llegaran a aprender la lengua artificiosa unificada. Pues la Academia, en vez de haber continuado, depurado e impulsado el vasco histórico, como es su misión, habría roto bruscamente la tradición en el desarrollo del idioma, para lanzar a èste en una vía nueva; habría quitado a la lengua la mayor parte de su valor y de su autoridad histórica; habría matado a los venerables dialectos tradicionales, consagrados por la adhesión fervorosa de las generaciones vascas de hace muchos siglos, y los habría sacrificado en aras de un producto nuevo, desprovisto de interés arqueológico y sin utilidad alguna para la cultura humana, hecho sólo para el pueril interés de poder decir en una lengua exótica lo que muy bien puede decirse en cualquiera de las dos grandiosas lenguas culturales del extremo occidental de Europa.

Mas por mi parte, estoy muy tranquilo. Los vascos de hoy, ni los de mañana, no cargarán su conciencia matando, no ya a un dialecto tan robusto como el vizcaíno, pero a ningún otro.»

Geroxeago beste itz auek esan zituan.

«Fomentar con energía la producción de los dialectos es cosa que está perfectamente en las manos de una Academia. También a ella es fácil guiar el gusto y favorecer con preferencia al dialecto que muestre más iniciativas y más espíritu expansivo; éste será el que tenga más genio literario, y por tenerlo, podrá sacar de sí mismo y de la comunicación con los demás dialectos el máximum de recursos de que es capaz la lengua vasca, en su natural evolución, y no en las solitarias lucubraciones de sus gramáticos. La producción literaría será también la que espontáneamente engendre los neologismos necesarios y esos vivirán y no los que elaboren los doctos. La producción del dialecto preponderante será la que, atrayéndose por su mérito la adhesión de todos, apoque la vida de los otros dialectos, sin ser verdugo que los ajusticie. Dejad que la vida y la muerte se fragüen providencialmente en el arcano operar de la naturaleza.»

Gure lagun maite Eguzkitzak batzar onetarakoxe idatzi digun irakurkizun mamintsutik arau bat edo beste artuko ditut. Geien geienak pozik eta gogoz ne-

retuko nituke; baina batetik luzegi egingo nuke nere lan au, bestetik guziok eskuartean dezue gure lagunak irakatsi diguna.

Ona emen bere itz edeŕak: «Bere euskalkiz idazle trebea danak gipuzkoaŕez eŕaztasunik ezpa'leuko ta euskalki onetan idaztera beartuko ba'gendu ori euskeraren kaltean izango litzake. Augaitik gipuzkoar euskalki osotua erabilteko eskakizun ori ondo dago; baña bakotxari bere euskalkiz idazteko eskubidea gitxitu barik. Gipuzkoeraz *erdiz erdi* ta bere euskalkian ondo idatziko daula uste daunak, berea erabilita, geyago egingo dau.»

Ona emen beste arau sakon, ni nolabait artzen nauen bat: «32-gaŕena. Eŕiak osoro nai erdizka galdu dituan aditz-erak beŕbiztu nairik idazle askok gogoz lan egiten dabe, eŕiak darabiltzanak beste euskalki batenak dirala-ta. Oŕetan ekin baño, noz edo bein euskaldun guztiok aditz-joko apain eta aberats bakar batégaz gelditu gaitezan lan-egin obe litzake; euskerari osasun eta bizitza sendoa emoteko eun bidar obe. Ibili ta ibili idazleak ori ezagutu badagie euskeraren alde zerbait egingo dogu; bestelan gauza gitxi.»

Gizonak: orain dala bi urte inguru *Latsibi* deritzaion gertirudi (novela) bat bizkaieraz idatzi nuan. Euskeraren batasunezko erabakia artuarte enuan argitaratu nai izan. Gipuzkera Euskaltzaindiak bere euskalkitzat ar baleza, idazki oŕitxu au bizkaieratik itzultzea lan neketsua izanaŕen, orain den bezela enuke utziko. Gertirudi onetan bizkaierako *doguz* eta *dozuz (ditugu* eta *dituzu*-ren ordez) eta *nebazan* ta *ebazan (nituan* ta *zituan* adierazteko) maiz darabilzkit. *Z*-dun adizki oriek yatoŕago dira ta or-emenka toki askotan esaten ditu eŕiak; beron egoki diran *it*-dunok ere, yatoŕak izan ezaŕen, Bizkaiko beredin semeren

ezpainetan bizi dira. Nik gaurdanik nere *Latsibitxo* onetan asita, gure lagunaren arau oŕen bidez, bizkaieraz ere *difugu*, *difuzu*, *nituan* ta *zituan* idaztortzean (luman) artuko ditut.

Badira, alabainan, Bizkaian, gutxi edo gei zabalduak, gipuzkerazko adizki, tintontzietatik azaleratzen eztiran beste batzuk ere. Lekeition bertan bizi dira gipuzkerazko *naiz* ta *aiz*-en seme *naix* ta *aix*, baita *noiz*-en ondorengo *noix* ere. Ango eŕiak eztitu erabiltzen bizkaitar geienen *naz*, *az* ta *noz* (Markiñaŕen *nos*). ¡Ea neure euskalki-lagunak! Abiadatxo bat eta aurera.

Oŕezaz gainera Bizkaiko euskalki zabal edatsu ta aberats ark baditu eŕirik asko, Abadiano ta Eloŕion baŕena asi, Leniz-ibar menditsuan zabaldu ta Aramaionan gora Otzandianora igoezkero *mutiltxo bat* (ez *mutiltxu baf*) esan oi duenak. ¡Beste abiadatxo bat, lagun maiteak, beste uŕats bat batasun-bidean eta aurera beti.

Batasun-bide bizitze-bide dan onetan, ez guk soil-soilik, baita gipuzkoako idazleak ere gurekin batean uŕats on bat, onenetariko bat eŕaz egin dezakete. Bizkaieraz Arabako Zigoitia-ibaŕean bezela gipuzkeraz Oiarzun-aldean *dut*, *duk*, *dugu*, *duzu* entzun oi da. Gainera *u* ori Urola ta Deba-ren bazteŕetan izan ezik (orietan *deu*, *debe* esaten due) gipuzkeraz nonnai darabilte irugaŕen adizkietan; *ekaŕi du*, *ekaŕi due*. Zuen oraintsuko *det* miŕiz maxkal oŕen ordez ar ezazute *dut*, giputz-idazleak; guk, bizkaitaŕok, geroxeago gure Zigoitiako *dut* gure euskalkian baŕenago sartuko genuke ta orduan Euskaleŕi osoan *dut* erabilia izango litzake.

Beste arau bat dakar Eguzkitzak, 34-gaŕena, aurekoa bezen egokia. Onek ere ni noizbait artuko nin-

duan, arako *Euzko gastedi* ori sortu baino lenagoko *eusko gaztea* nintzan urteren batean. Lenengo ile urdinak ispiluan ikusi-aurretik ere arau orren koskola autsi nuen, ordea. Auxe dino 34-garen orek: «Batzuk *zu*-ren ordez *itano* sartu, *zuek*-en ordez *zu* erabili ta *zuek* berari dagokion aditz-joko guztiak bein eta betiko baztertu nai leukie; beste batzuk itanozko aditz-jokoa zokondora jaurti. Lenengo aek nai dabena gaur ezin leiken gauzea da: bigaren oneik nai dabena, iñoiz egin bear ez dana.»

Euskalari ta euskaltzain batzuren eritzia aipatu ta azaldu ta eraskindu (komentatu) dedanezkero, entzun ezazute orain nik euskeraren batasunezko erizkizun onezaz dedan ustea. Bost-sei bat idazkitxo ditut gipuzkeraz eginak: *Ortzuri*, *Urlo*, *Aitaren bildur*, *Prontuario de la lengua vasca* ta *Ardi galdua;* Sakel-iztegia ere gogo onezaz egin nuan. Nik nere kabuz egin nuana Euskaltzaindiak egun beintzat egitearri enioke zur ta egoki eritziko. Emeki ta astiro euskalki oretara yo, bai; mutuŕez ta datoŕena betorka, ez. Nerea baino aburu argitsuagoak entzunak dituzue. Izkera banatu bat ezomenda indarka bat izatera iristen. Iriskizun (asequible) balitz ere, Bizkai ta Lapurdialdeko bakoiztasunezko gaŕa ikusita, batasunerako asmo au tupustean, itsumustuan aurera bagenerama, eriotzerabideko uŕats bat, atzeratu ezindako uŕatsa izango litzake gure erabakia. Izkelki-gudu andi bat erakoriko genuke euskaldunen artean. *Abertzale*-alderdia bera puskatua geldituko litzake; eta au ez euskerari ez Euskaleŕiari eztagokio. Orain sorbeŕi degun Donostiako *Argia* (eguzkiarena bezela noizbait egunerokoa ta gainera betikoa izan bite) argitxo ori itzalia izan diten aizeka, aize emanka bizi izango lirake

alde batetik Bayonako *Gure Heŕia*, bestetik Bilboko *Euzkadi*. Goazen bai batasunera, bainan emeki, astiro, zurki. ¿Nola? Onelako zerbait eginez.

a) Aitasantu ta gotzainaren agiriak euskeratzea lortu badezagu, saialdi bat egin dezagun gipuzkera utsez. Beste euskalkidunak sapustu ezik, aurera; bide oŕi yaŕaiki. Zuŕumuŕurik sortuko balitz, bizkaieraz ere yaŕi agiriok. (1)

b) Bizkaiko eskoletan gipuzkerazko ipuin naiz beste irakurgaitxoren bat sartu ta angoai espabiderik ez emateko, emen egingo diran eskoletan ere bizkaierazko irakurgai bat edo bestetxo itsatsi.

z) Gure batzaŕetarako erizkizunak ere gipuzkeraz idatzi ditezke.

d) Erabakiak ere, gure agerkari *Euskeran* argitaratzean beintzat, euskalki onetantxe yaŕi ditzagun.

e) f) g) ta uŕengoak azturak (experientziak) erakutsiko ditu.

Hazpaŕengo udaletxean esan nuana: edozein euskaldunek atal bat baino osoa maiteago izan bear du. Au gora-bera guziok «nik nerea, nik nerea, nik nerea» —ka astekoak bagera, otsoak eta aizeriak (Españia ta Frantziako erderak) guziok ezereztu-orduko, sendoen bizi dan euskalkia ar bezate etoŕkizuneko euskaldun orok berentzat.

Auxe da, gizonak, nere eritzia. Orain neri dagokidana ezta besterik batzuri eskeŕak emanez, besteak mingainean kilikatzea baizik. Txosten onetan aipatu ditudan erizle guziai, Bilboko ta Donostiako, Lekarozko ta Hazpaŕengo, Oñako ta Madridko, eta gure

(1) Gipuzkoar odoldun euskaltzain baten aburuz agiri auek bizkai-ta gipuzkeraz idaztea obetsi zan.

arteko Campion, Urquijo ta Eguzkitzari euskaltzain guzion izenean eskeŕak erakutsi ta zuei, beste zortzi euskaltzainoi, zeron aburua eskatzea.

AZKUE.

Bilbon, 26, IV, 1921.